

KULTURA-POLITIKA ETA EUSKARA ARLOAREN UDAL DIRULAGUNTZAK EMATEKO
DEIALDIA.
BASAURIKO UDALA, 2025

1. Artikulua.- Eremuak, dirulaguntza-lerroak eta diruz lagun daitezkeen kontzeptuak.-

Erakunde interesdunek zein eremu eta dirulaguntza-lerrotan aurkeztu ahal izango dituzten eskabideak, hainbat kontzeptu subentzionagarritan banakatuta daude.

Dirulaguntza-eremu eta lerro bakoitzerako xedapenak eranskin gisa agertzen dira. Honako hauek dira:

EREMUA	KONTZEPTUA
KULTURA	KULTURA-JARDUERAK
KIROLAK	KIROL-EKITALDI ZEHATZAK EGITEA
	KIROL-EKITALDI IRAUNKORRAK EGITEA
GAZTERIA	AISIALDI ETA ASTIALDI ELKARTEAK
HEZKUNTZA	ESKOLA LIBURUTEGIAK
	ESKOLA-GARRAIOA
	GURASO ELKARTEEN JARDUERAK
	ESKOLA-LIBURUTEGIEN SUSTAPENA IRAKASKUNTZA-KOOPERATIBETAN ETA IKASTETXE PRIBATU EDO ITUNDUETAN
	ESKOLA-GARRAIOAREN JARDUERAK IRAKASKUNTZA-KOOPERATIBETAN ETA IKASTETXE PRIBATU EDO ITUNDUETAN
	IKASLEEN GURASO ELKARTEEK, IKASKETA KOOPERATIBEK ETA IKASTETXE ITUNDUEK EGINDAKO JARDUERAK
EUSKARA	ASTIALDIKO MONITORE- EDO ZUZENDARI-TITULU OFIZIALAK LORTZEKO FORMAZIOA EUSKARAZ EGITEA SUSTATZEA, BAI ETA GAZTE ETA KULTURA-DINAMIZATZAILE FORMAZIOA
	EUSKARA IKASTEA SUSTATZEA
	EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEA ELKARTEETAN, ENPRESETAN ETA MERKATARITZAN
	GIDABAIMENA FORMAZIOA EUSKARAZ EGITEA
	EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA OSPATZEKO, IKASTETXEETAN JARDUERAK EGITEA

2. Artikulua.- Dirulaguntzak emateko prozedura.-

Deitutako dirulaguntzak norgehiagoka prozeduraren bitartez emango dira, lerro bakoitzean jasotako balioztapen-irizpideei eta Basauriko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren xedapenak jarraituta.

Halako prozeduran, dirulaguntzak emateko, aurkeztutako eskaerak alderatu, eta horien arteko lehentasuna finkatuko da, adierazitako irizpideen arabera. Gero, dirulaguntza emango zaie deialdian jasotako aurrekontu-zuzkidura gainditu gabe balioztapen handiena lortu dutenei.

Euskararen eremuan, prozedura sinplea jarraituko da, ikastetxeetan Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko jarduerak egiteko ematen diren dirulaguntzetan izan ezik. Lehia sinplearen

kasuan, funtsak banatuko dira deialdiko baldintzak betetzen dituzten eskabideak jaso ahala, aurrekontu-kreditua agortu arte.

Organo eskudunak hainbanatu egingo du deialdira bideratutako zenbateko osoa, eskaera guztiei erantzuteko.

Edonola ere, dirulaguntza emango da baldin eta ebazpena emateko unean kreditu egokia eta behar bestekoa badago.

3. Artikulua .- Eskaerak aurkezteko epea eta modua.-

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, deialdian beste eperik adierazi ezean.

Deialdiei buruzko informazio guztia eskuragarri egongo da udal webgunean (www.basauri.eus), eta bertatik deskargatu ahal izango dira deialdi bakoitzari dagozkion ereduak.

Eskabideak aurkeztu ahalko dira Basauriko Udaleko Egoitz Elektronikoa, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuko bulegoetan, ohiko ordutegietan, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak aurreikusitako tokietan.

Era berean, eskaera guztietan aintzat hartu beharko da dirulaguntzetatik eta beste iturrietatik lortutako finantziazioak, guztira, ezingo duela gainditu aurkeztutako programaren kostua.

Udalak egoki iritzitako argibideak eskatu ahal izango dizkie erakunde eskatzaileei, aurkeztutako eskabidea hobeto balioetsi ahal izateko.

4. Artikulua.- *Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak eta informazioak.-*

1. Dirulaguntza-eremu eta -lerro bakoitzerako eskabide-orri bat bete beharko da, Udalaren eredu ofizialaren arabera. Orri horretan jasoko dira pertsona edo erakundeak dirulaguntza-lerro bakoitzerako aurkeztutako programak — lerro hori xehatuta egon daitekeen kontzeptuen arabera—, eta, betiere, ondorengo artikuluek jasotako mugak errespetatuta.

2. Eskabide-orriarekin batera aurkeztu beharko dira, batetik, dagozkion eranskin gisa datozen agiriak, behar bezala beteta; eta bestetik, adierazitako gainerako dokumentazioa.

3. Eskabide-orrian pertsona edo erakunde eskatzaileak aitortu beharko du ez duela onuradun izateko debekurik (Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua jasotzen ditu debeku horiek), eta orri hori sinatu beharko du. Horrez gain, honako dokumentu hauek aurkeztuko beharko ditu eskatzaileak:

- a) Dagokion dirulaguntza-lerrora aurkeztutako programa(k), eta memoria bat, hain zuzen ere, diruz lagundutako xedea, proiektua, jarduera edo portaera zehatza aurrera eramateko egingo diren ekintzak jasotzen dituen. Memoria horretan hauexek ere jasoko dira: aurreikusitako diru-sarrera eta gastuen aurrekontua; epeak eta datak; aurreikusitako helburuen deskribapena; metodologia; jarduera zein biztanleria-eremuri zuzenduta dagoen; eta lortu nahi diren ondorioak. Aipatutako guztia euskarri digitalean (CDa, pendrivea...) aurkeztu beharko da, Udalak emandako ereduaren arabera.

- b) Programa bakoitzeko aurrekontuaren fitxa, euskarri digitalean (CDa, pendrivea...), Udalaren ereduaren arabera.
- c) IFZren fotokopia.
- d) Eskatzaileak ez badio Udal Ogasunari baimenik ematen bere zerga-egoerari buruzko datuak eskuratzeko, Basauriko Udalak emandako «Udal Ogasunarekiko egoerari buruzko egiaztagiria» aurkeztu beharko du.
- e) Udalari ez bazaio baimenik ematen eskatzeko Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin zerga-egoera zein den egiaztatzeko datuak, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira: Gizarte Segurantzarekin zorrik ez dagoela egiaztatzen duen agiria, edota erakunde eskatzaileak bere ardurapeko langilerik ez duela egiaztatzeko agiria. Diruzaintza Orokorrak emango du agiri hori, dagokion urtean bertan. Aipatutako egoerak iraun beharko du eskabide-orria aurkezteko unean, eta mantendu egin beharko da dirulaguntza eman, obligazioa aitortu eta ordainketa egiten denean ere. Eta Ogasunaren agiria, zerga-obligazioak egunean daudela egiaztatzeko.
Egiaztagiri horien bien ordeztu, Udalaren ereduaren arabeko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango da, baldin eta emango den dirulaguntza 3.000 €-tik beherakoa bada.
- f) Diruz lagunduko den jarduera edo programa irabazi asmorik GABEKOA dela erakusten duen erantzukizunpeko aitorpena.
- g) Udal dirulaguntzak emateko Ordenantzaren 11. artikuluan ezarritako debekurik ez dagoela jasotzen duen erantzukizunpeko aitorpena.
- h) Sexu-izaerako deliturik ez izatea jasotzen duen erantzukizunpeko aitorpena.
- i) Erantzukizunpeko aitorpena: adingabe bat babesgabezia egoeran egon daitekeelako susmoa Udal Gizarte Zerbitzuei jakinarazteko konpromisoa.
- j) Erantzukizunpeko aitorpena: adin txikikoek eta haiekin harremanetan dauden adin nagusikoek itun digitala sinatzea.
- k) Hartzekodunaren fitxa, banku-erakudearen zigiluarekin.
- l) Diruz lagundutako xedea, proiektua, jarduera edo portaera zehatza aurrera eramateko egingo diren ekintzetan euskararen erabilera zein den adierazten duen fitxa (ekintza bakoitzeko fitxa bat).
- m) Dirulaguntza-lerro jakin baterako aipatutako beste edozein dokumentu.

4. Horiez gain, Basauriko Udaleko Herritarren Parte-hartze Erakundearen Erregistroan sartu ezin daitezkeen erakundeek honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a) Dagokion erregistroan inskribatuta daudela egiaztatzen duen agiriaren fotokopia.
- b) Erakundearen estatutuen fotokopia.

5. Eskaerak ez baditu betetzen deialdian eta ordenantzaren jasotako baldintzak, interesdunari hala jakinaraziko zaio, eskabidea zuzen dezan, gehienez ere, 10 eguneko epean. Era berean, adieraziko zaio horrela egin ezean, eskabidea atzera botako dela, administrazio-prozedura erkideari buruzko legeriak jasotako baldintzetan.

5. Artikulua.- *Pertsona edo erakunde onuradunak dirulaguntzaren publizitatea egitea.*

Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 14. artikuluan xedatutakoez gain, pertsona eta erakunde onuradunek ezin dute hizkera eta irudi sexistarik erabili argitalpenetan, batez ere publizitate- eta komunikazio-euskarrietan, eta berdintasunaren, aniztasunaren eta rol aniztasunaren balioak dituen hizkuntza eta irudia sustatu behar dute.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren babesean, egin daitezkeen jarduketetan, pertsonak ez dira giza duintasun gutxiago edo gehiago izango sexuaren, sexu-orientazioaren edo genero-identitatearen arabera, ezta objektu sexual edo aberastasun-produktu huts gisa ere. Halaber, ezin da zabaltu emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen duen edukirik. Beraz, estereotipo sexistak saihestuko dira, eta sexu-, gorputz- eta identitate-aniztasuna bultzatuko da.

Horretarako, berdintasun-arloak dekalogo bat jarri du eskuragarri, publizitatean genero-ikuspegia txertatzea errazteko.

6. Artikulua.- *Bateragarritasuna beste dirulaguntza batzuekin.*

Basauriko Udalak eman ditzakeen dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuen dirulaguntzekin, kontrakoa adierazten ez bada. Edozelan ere, dirulaguntzetatik eta beste iturrietatik lortutako finantzaketa ezingo da diruz lagundutako programaren kostua baino handiagoa izan.

7. Artikulua.- *Dirulaguntzen zenbatekoak, eta zenbateko horiek ordaintzea.*

1. Orokorrean, emandako dirulaguntzak aurretiaz eta oso-osorik ordainduko dira; alegia, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa justifikatu baino lehen banatuko dira, eta ez da inolako berme motarik eskatuko (adibidez: dirulaguntzari atxikitako jarduerak aurrera eramateko beharrezko finantziaketa). Edonola ere, xedapen zehatzek ordainketetarako bestelako araubide bat ezarri ahalko dute.

Euskara eremuko dirulaguntzetan, Euskararen Nazioarteko –Eguna ospatzeko ikastetxeetan egingo diren ekintzetakoetan izan ezik, eskaerak egin orduko diruz lagunduko den ekintzaren gastua egina dago, hortaz, eskatzaileei dagokie dirulaguntza eman aurretik justifikazioa egitea.

2. Emandako dirulaguntza banku-transferentzia bidez ordainduko da, Udal honetako Hirugarrenen Erregistroan jasotako pertsona edo erakundearen kontu-korrontean.

3. Dirulaguntza ez da ordainduko baldin eta pertsona edo erakunde onuradunak beste dirulaguntzaren bat justifikatu gabe baldin badu eta berau justifikazeko epea agortuta badago. Halaber, dirulaguntza ez da ordainduko, dagokion pertsona edo erakundeari aurreko dirulaguntza bat itzultzeko agindu, eta hala egin ez badu.

4. Eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekoari buruz, eskatutako kopurua oinarritzat hartu, eta lortutako puntuen araberrako portzentajea aplikatuko zaio. Beraz, 3.000 €-ko zenbatekoa eskatu bada eta 20 puntu lortzen badira, zenbateko horren % 20 da diruz lagunduko dena.

5. Eskabideek dagokion lerroko gehienezko kreditua gaindituz gero:

Lerroan erabilgarri dagoen kopuru osoa banatuko da, behin-behinean, aurkeztutako eskabide guztien artean. Eragiketa horren ondorioz, koefiziente zuzentzaile bat lortuko da, behin-behineko esleipenari aplikatzeko. Adibidez: lerroan 60.000 euro badaude, eta, behin-behinean, 76.178 esleitu badira, koefiziente zuzentzailea 0,7876063 izango da, eta, ondorioz, behin-behinean 750 euro esleitu badira, koefizientea aplikatu eta gero zenbateko hori 590,71 euro izango da.

6. Eskabideek ez badute lerroko gehienezko kreditu erabilgarria gaindituko, lerro horretako zenbateko erabilgarri osoa hainbanatuko da eskatzaileen artean. Hori bai: ezingo da gainfinantzaketarik eman, hau da, dirulaguntzak ezingo du eskatutako kopurua gainditi.

7. Dirulaguntzak pilatu eta gainfinantzaketa gertatzen bada, Basauriko Udalak emandako zenbatekoa itzuli beharko du onuradunak, finantzatutako kopuru osoaren arabera egindako ekarpenaren neurrian.

8. Artikulua.- *Dirulaguntzak zuritzea.*

1. Emandako dirulaguntzak justifikatzeko epea amaituko da horiek eman diren ekitaldiaren hurrengoaren urtarilaren 31n, salbu eta dirulaguntzen lerro bakoitzeko xedapen espezifikoek beste epe bat ezartzen badute.

2. Justifikatu beharreko zenbatekoa.

Dirulaguntza emateko aurkeztutako zenbatekoaren % 100 justifikatu beharko da, ez bakarrik Basauriko Udalak emandako dirulaguntzari dagokion kopurua.

Orokorrean, norgehiagoka kasuetan, pertsona edo erakunde onuradunak programa bakoitzean egindako gastuaren kontu-egiaztagiria aurkeztu beharko du. Kontu horrek Basauriko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 31. artikuluan adierazitako dokumentuak jaso beharko ditu.

60.000 eurotik beherako dirulaguntzetarako, Basauriko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 33. artikuluan araututako justifikazio-kontu sinplifikatua ezarri da, besterik adierazi ezean, justifikazio-sistema gisa.

Kasuetan bietan, zeharkako kostuen deklarazioak arau hau beteko du: ez da egiaztagiririk aurkeztu beharko, berariaz eskatzen ez bada. Kostu horiek diruz lagundutako jardueraren pertsona edo erakunde onuradunari egotzi beharko zaizkio, arrazoiz dagokion zatian, orokorrean onartutako kontabilitate-irizpide eta -arauei jarraiki eta, edonola ere, jarduera gauzatzen den aldiari dagozkion kostuen neurrian. Edozelan ere, ez da inolaz ere egotziko diruz lagundutako programaren kostu zuzenen % 8 baino gehiago.

Gastua justifikatzen duten dokumentuek dagokion deialdiaren ekitaldi ekonomiko barruko data

izan beharko dute, eta honako datu hauek jaso beharko dituzte:

- Onuraduna nor den.
- Gastuaren helburuaren deskribapena. Helburu horrek, bestalde, programaren egikaritzarekin zerikusi zuzena izan beharko du.

Diruz pagatu ez diren fakturen ordainketak bankuko egiaztagiri bidez egiaztatuko dira, bai transferentzia-agiri bidez, bai helbideratze-agiri bidez, bai horien pareko agiri baten bidez.

Era berean, egiaztagiriak lotuta egongo dira, bakar-bakarrik, justifikatzen duten programari.

Jatorrizko dokumentuak aurkeztu beharko dira, zigilu-marka jartzeko. Marka horrek jasoko du dokumentuak zein dirulaguntza justifikatzeko aurkeztu diren, eta frogagiriaren zenbatekoa dirulaguntzari osorik edo partzialki egozten zaion.

Beraz, oro har, ordainagiriak ez dira baliodunak izango, eta ez dira onartuak izango dirulaguntzak justifikatzeko.

Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoak ezarritakoa betetzeko, dirulaguntzari lotutako dokumentazioan emandako datuak bakar-bakarrik erabiliko dira dirulaguntza emateko prozeduran.

3. Ez justifikatzea, edo justifikazioa aski ez izatea.

Justifikatzeko betebeharra ez betetzeak edo behar bezala ez justifikatzeak, bai eta 14. artikuluan aipatutako publizitatea edo zabalkunde-neurriak ez betetzeak ere, jasotako zenbatekoak osorik edo zati batean itzuli beharra ekarriko du, berandutze-interesarekin batera, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan eta Basauriko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren II. eta V. kapituluetan ezarritakoaren arabera.

Gastuaren justifikazio partziala eginez gero, justifikatu gabe geratu den gastuaren zenbateko baliokidea itzuli beharko da. Nolanahi ere, proportzionaltasun- eta ekitate-printzipioei jarraituko zaie, eta, horretarako, kasu zehatz bakoitzaren inguruabarrak hartuko dira kontuan.

9. artikulua.- Erakunde onuradunen betebeharrak.-

Dirulaguntza jasotzen duen erakundeak deialdi honetan ezarritako xedapenak bete beharko ditu, bai eta Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 12.2 artikuluan xedatutakoa ere, eta, bereziki, dirulaguntza eman duen organoaren aurrean justifikatu beharko du dirulaguntza emateko edo baliatzeko ezarritako jarduera egin dela eta helburua bete dela.

Eusko Jaurlaritzak eta Basauriko Udalak Hizkuntza Ofizialen erabileraren gainean indarrean duten araubidearen arabera, diruz lagundutako jarduerak berekin badakar herritarrekin zuzeneko harremana izatea, euskararen erabilera normala bermatuko da, hargatik eragotzi gabe gaztelania erabiltzeko eskubidea. Bestalde, hartzaileak gazteak edo haurrak direnean, irizpide orokorrean gain, honako hau hartu beharko da kontuan: euskararen erabilera sustatzearren, egiten diren ekitaldi edo jardueretan, (hau da euskararen erabilera sustatzeko helburua duten ekitaldi eta jardueretan) onuradunek parte-hartzaileei euskaraz zein gaztelaniaz hitz egiteko aukera bermatu beharko dietela. Halaber, hezkuntza zentroetan burutu beharreko jarduerak direnean, bi hizkuntza ofizialetan egiteko aukera bermatuko da. Nolanahi ere, euskara-gaztelania hurrenkera izango da.

Orokorrean, kultura, kirol edo aisialdi jarduerak egiteagatik Basauriko Udalaren dirulaguntzak jasotzen dituzten pertsona edo elkarteek, diruz lagundutako jarduera horiei lotuta argitaratzen dituzten idatzi, iragarki, ohar eta komunikazio guztiak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko dituzte. Berdin jokatu beharko dute ahozko zein idatzizko agerpen orotan, propagandan ere. Testu elebiduna bada, euskarazko bertsioak lehentasuna izango du, testuaren neurriari, ikusgarritasunari edota hizkuntza-ordenari dagokionez. Testuok

zuzenak direla bermatzeko, doako itzulpen, zuzenketa eta hizkuntza-aholkularitza zerbitzua eskaintzen du Basauriko Udalak, www.basauri.eus webgunean eta 94 466 63 12 telefono-zenbakian. Halaber, ekitaldi zehatzetan megafonia bidez emandako mezuak euskaraz edo hizkuntza ofizial bietan izan beharko dira.

Dagokion atalak aipatutakoa bete egin dela egiaztatu ahal izateko, diruz lagundutako programan/jardueran zehar egindako kartel, ohar, jakinarazpen, eta abarren ale bana aurkeztu beharko dute elkarteek (paperean nahiz eskaneatuta), dirulaguntzaren justifikazioarekin batera, eta euskararen erabileraren gaineko fitxa aurkeztu beharko da jardueran euskararen benetako erabilerarekin.

Udalbatzak «Hondakinak, oro har, eta plastikoak, bereziki, gutxitzeko, gaika biltzeko eta berrerabiltzeko» mozioa onartu zuen 2018ko ekainaren 26an. Bertan jasotako konpromisoak betetzeko, diruz lagundutako jarduerak honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- Erabilerak bakarreko botila, plater eta ontzirik ez. Horien ordean, produktu konpostagarriak edo iraupen luzeak erabili beharko dira.
- Ekitaldian sortutako hondakinak gaika bildu beharko dira. Antolatzaileek behar bezala erabili beharko dituzte gaikako bilketa egiteko Udalak emandako ontziak. Era berean, ikus-entzuleei jakinarazi beharko diete badaudela horrelako ontziak, eta horiek egokiro erabiltzeko argibideak eman beharko dizkiete.
- Antolatzaileek ahalik eta hondakin gutxien sortu beharko dituzte (batez ere, birziklagarriak ez diren horietakoak).

Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen 26/2015 Legeak xedatutakoa betetzeko, eta adin txikikoekin harremanetan egotea eskatzen duten lanbide, ofizio eta jardueretan aritu ahal izateko betekizun gisa, erantzukizunpeko adierazpena eskatuko zaie Kultura-politika eta Euskarako dirulaguntzak eskatzen dituzten elkarte edo erakunde guztiei. Adierazpen horrek jaso beharko du adin txikikoekin harremanetan egongo diren langile guztiek badutela sexu-izaerako deliturik ez izateari buruzko egiaztagiria.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan xedatutakoa betetzeko, diruz lagundutako erakundeek Basauriko Udalak indarkeria matxista prebenitzeko egindako lanaren eta dauden udal-baliabideen berri izan beharko dute.

9. Artikulua.- Araudi aplikagarria.-

- Basauriko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorra (2024ko abuztuaren 6ko BAO)
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen erregelamendu-araudia.
- 38/2003 Legearen Erregelamendua onesten duen 887/2006 Errege Dekretua
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

Era berean, honako hauek dirulaguntzen arloan xedatutakoa aplikatuko da:

- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako legearen testu bategina onartzen duena.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa (I. titulua).
- 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzkoa (II. titulua).
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- Azaroaren 24ko 10/1982 oinarritzko Legea, Euskeraren erabilpena arauzkotzekoa.
- Eusko Jaurlaritzaren 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko Toki Erakundeetan Hizkuntza Ofizialen Erabilera Instituzionala eta Administrazioa Normalizatzeari buruzkoa.
- Udalak 2023ko azaroaren 30ean Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak Basauriko Udalean; hain zuzen ere, 1.5.2 atala.
- Eusko Jaurlaritzaren 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko.
- Gainerako araudi osagarria.

ERANSKINA: KULTURA

KULTURA-POLITIKA ETA EUSKARA ARLOA

BALORAZIO BATZORDEAREN OSAERA: EUSKARA, KULTURA, HEZKUNTZA, GAZTERIA, JAIK ETA KIROLAREN INFORMAZIO BATZORDEA

Diru-laguntza lerroa	KULTURA-JARDUERAK.
Diruz laguntzeko kontzeptua	KULTURA-JARDUERAK, ORO HAR
Aurrekontu-partida	72.3345.48199
Partidaren deskribapena	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK IAGE-EI, BESTE KULTURA-JARDUERA BATZUK
Zenbatekoa	15.000,00 €
Gehienezko Zenbatekoa	18.500,00 €
Diru-laguntza emateko prozedura	NORGEHIAGOKA

1. Artikulua.- Eremua eta xedea

Basauriko Udaleko Kultura Atalak, Kulturaren eremuan, deialdia egin du dirulaguntzak emateko, kultura bultzatzeko xedez, "kultura-jarduerak" izeneko dirulaguntza lerroa hain zuzen. Horrela, Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren helburua lortzen laguntzen du, hots, "kultura sustatzea, oro har". Horrela, era guztietako kultura-jarduerekin lotutako elkartegintza sustatzen da.

2. Artikulua.- Erakunde onuradunak

1. Kultura-jarduerak, oro har (antzerkia, txapelketak, kultura-jarduerak) egiten dituzten Basauri udalerriko talde edo elkarteei.
2. Kanpoan geratzen dira guraso talde edo elkarteak, ikastetxeak, ikasle elkarteak, eta jarduna kulturaren eremuko ez duen beste edozein.

3. Artikulua.- Diruz lagun daitekeen jarduera

1. Erakunde eskatzailearen ohiko funtzionamendu-programaren parte diren kultura-jarduerak, hain zuzen ere, 2025ean zehar egiten direnak.
2. Bazter utzitakoak:

- Basauriko Udaleko diru-laguntzen deialdi barruan, beste diru-laguntza lerro baten xede diren jarduerak.
- Eskolaz kanpoko jarduerak.
- Diruz lagundutako jarduera aurrera eramaten den lokaletan egindako obrak, zaharberritzeak eta alokairu-gastuak.

4. Artikulua.- Dokumentazio espezifikoa:

Eskabidearekin batera, deialdi honetako xedapen orokorretan eskatutako agiriak aurkeztu beharko dira, bai eta honako hauek ere:

- Jardueren proposamena (Jarduerak_actividades.doc).
- Aurrekontua (Aurrekontua_Presupuesto.xls).
- Elkartekide edo elkartean izena emanda daudenen, eta bertako Zuzendaritza Batzordeko kideen egiaztagiria, aniztasunaren tratamenduagatik puntuak lortu nahi badira (5 C artikulua).

5. Artikulua.- Balorazio-irizpideak

A.- ERAKUNDEARI DAGOZKION IRIZPIDEAK: 5 PUNTU

Basauriarra EZ den elkartea, kluba edo erakundea:	0 puntu
Basauriarra den elkartea, kluba edo erakundea	5 puntu

B.- PROGRAMARI DAGOZKION IRIZPIDEAK: 60 PUNTU

1.- Programaren interes soziokulturala: 30 puntu

Urteko programan sartutako jardueren kopurua eta ekitaldi osoko garapena. Jarduera horiek udalerriko kultura-beharrizanei erantzun beharko diete	10 puntu
Ekitaldi osoan garatzea	6 puntu
Programan sartutako jarduera bakoitzeko	2 puntu
Jarduerak udalerrian duen eragina. Jardueraren egonkortasuna eta sendotzea udalerriko kultura-eskaintzaren barruan.	8 puntu
Jarduera aurreko 4 urteetan garatu da	8 puntu
2 puntu jarduera-urte bakoitzeko, jarduera hori 4 urte baino gutxiagokoa izan bada.	6 puntu, gehienez.
Euskal kultura sustatzea	5 puntu
Bai	5 puntu
Ez	0 puntu
Parte-hartzaile kopurua	7 puntu
1-29	2 puntu
30-60	4 puntu

60 baino gehiago	7 puntu
------------------	---------

2.- Proiektuaren kalitate teknikoa eta aurkeztutako aurreko proiektuaren aurrekontura egokitzea: 15 puntu

Era berean, balioetsi egingo dira aurreikusitako helburuak, programa nori zuzenduta dagoen, programaren zergatiak eta aurrera eraman beharreko jarduerak.

Eskabideek, atal honetan, 5 puntu lortu beharko dituzte, gutxienez.

Gehienez ere lor daitekeen puntuazioa, zuritu gabeko portzentajearen arabera (zeinaren ondorioz eskatutako azken dirulaguntza, zati batean ala osorik, itzuli behar izan den)	
% 95 baino gehiago zuritu gabe	5 puntu
% 60 baino gehiago eta % 95 baino gutxiago zuritu gabe	7 puntu
% 30 baino gehiago eta % 60 baino gutxiago zuritu gabe	10 puntu
% 8 baino gehiago eta % 30 baino gutxiago zuritu gabe	13 puntu
≤%8 zuritu gabe	15 puntu

3.- Finantza-ahalegina: 15 puntu

Gastu eta diru-sarrera totalen arteko proportziozkotasuna. Balioetsiko dira proposatutako programa edo jarduera aurrera eramateko finantzaketa-iturri eta baliabideak bilatzeko egindako ahaleginak.

Kaudimena (lortutako baliabide ekonomikoak)	15 puntu
Aurrekontuaren % 1 eta % 20 artean	2,5 puntu
Aurrekontuaren % 21 eta % 40 artean	5 puntu
Aurrekontuaren % 41 eta % 60 artean	7,5 puntu
Aurrekontuaren % 60 baino gehiago	15 puntu

C.- DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK JARDUERETAN PARTE HARTZEKO EKINTZAK: 2 PUNTU

Desgaitasuna duten pertsonak jardueretan parte hartzeko ekintzak aurreikustea. Proiektuak jasota agertu behar dira.	2 puntu
Dirulaguntzaren xede diren jardueretan parte- hartzaileen integrazioa sustatzen duten ekintzak	1 puntu
Zuzendaritza-batzordean eta/edo ordezkaritza-organoan integratzeko ekintzak.	1 puntu

D.- KULTUREN ARTEKO BIZIKIDETZA SUSTATZEA: 2 PUNTU

Etorkinak gizarteratzeko ekintzak aurreikustea. Proiektuan jasota agertu behar dira	2 puntu
Bai	2 puntu
Ez	0 puntu

E.- BERDINTASUNAREN ALDEKO EKINTZAK: 6 PUNTU

Emakumeek parte hartzea sustatzeko eta bultzatzeko jarduera zehatzak egitea. Proiektuan jasota agertu behar dira.	4 puntu
Bai	4 puntu
Ez	0 puntu
Zuzendaritza Batzordean edota ordezkaritza-organismoan integratzeko ekintzak.	2 puntu
Bai	2 puntu
Ez	0 puntu

F.- EUSKARA SUSTATZEA ETA ZABALTZEA: 10 puntu

Hizkuntza-normalizazioan (ahozkoan zein idatzizkoan) parte hartzea. Proiektuan jasota agertu behar da	10 puntu
Jardueretan euskara eta gaztelania pare-parean erabiltzea, edota euskarari lehentasuna ematea.	5 puntu
Jardueretan bakarrik euskara erabiltzea.	10 puntu

G.- BESTE BATZUK: 15 PUNTU

Udal jardueretan edota udalerriko beste elkarteek Udalarekin lankidetzan antolatutako horietan laguntzea: 15 puntu

Udal jardueretan laguntzea	15 puntu
Parte-hartze edo lankidetzak bakoitzeko	3 puntu

Lankidetzak proiektuan zerrendatuta agertu beharko dira, eta bakar-bakarrik balioetsiko dira diru-laguntza espezifikorik jaso ez duten parte-hartze edo lankidetzak proposamenak.

Edozelan ere, Atalak egiaztatu ahal izango du aitortutako lankidetzak benetakoak izan direla.

6. Artikulua.- Dirulaguntza emateko prozedura

1. Diru-laguntza lerro honetan 18.500 euro banatuko dira, gehienez ere.

2. Lehenengo aldiz eskatuz gero, dirulaguntzaren zenbatekoa 250,00 eurokoa izango da gehienez.

Ilido horretan, 5 urteko epean dirulaguntzen eskabiderik ez duten erakundeak, lehenengo eskaeratzat hartuko dira.

7. Artikulua.- Hirugarrenak azpikontratatzea

Udal diru-laguntzak emateko Ordenantzaren 27. artikuluan ezarritako baldintzetan egingo da.

ERANSKINA: KIROLAK

Kultura-politika eta Euskara ARLOA

BALORAZIO-BATZORDEAREN OSAERA: EUSKARA, KULTURA, HEZKUNTZA, GAZTERIA, JAIK ETA KIROLAREN INFORMAZIO-BATZORDEA

Dirulaguntza-lerroa	KIROL-JARDUERAK
Diruz laguntzeko kontzeptua	JARDUERA IRAUNKORRAK ETA/EDO LEHIAKETAK EGITEA
Aurrekontu-partida	103.3411.48199
Partidaren deskribapena	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK IAGE-EI, KIROLAK
Zenbatekoa	300.000,00 €
Dirulaguntza emateko prozedura	NORGEHIAGOKA

1. artikulua.- Eremua eta xedea

Basauriko Udaleko Kirol Atalak, Kirolaren eremuan, deialdia egin du dirulaguntzak emateko, kirol-elkarteek eta klubek urtero antolatzen dituzten kirol-jarduera iraunkorrak edota txapelketak sustatzeko: «Jarduera iraunkorrak eta/edo lehiaketak egitea» izeneko dirulaguntza-lerroa, hain zuzen. Horrela, Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren helburua lortzen laguntzen du, hots, «kirola sustatzea udalerriko herritarren artean eta laguntza ematea udalerriko klubei».

Era berean, urteko jardueren-programaren gastuak finantzatzea, bideragarria izan dadin erakunde horiek modu orekatuan eustea, eta elkartegintza sustatzea Basauriko Udaleko Kirol Atalak antolatzen dituen kirol-jarduerak osatzeko.

Diruz lagundutako jarduerak gauzatzeko epea: 2025. urtea.

2. artikulua.- Erakunde onuradunak

1. Kirol-elkarteak, klubak eta Basauriko Udalaren Elkartearen Erregistroan izena emandako erakundeak.

2. Eskatzaileek Basauriko Udalaren Herritarren Partaidetzako Erakundearen Erregistroan (Modernizazio Arloa, Kareaga Goikoa 52) inskribatuta egon behar dute eta haien datuak eguneratuta eduki. TEL.: 944666300).

2. Bazter utzitako erakundeak:

- Ikastetxeak
- Kirol eremukoak ez diren elkarteak eta beste edozein jarduera egiten dituzten erakundeak.

3. artikulua.- Diruz lagun daitekeen jarduera

1. Izaera iraunkorreko jardueretan eta/edo urteko lehiaketetan parte hartzea.

2. Bazter utzitakoak:

- Basauriko udal dirulaguntzen deialdi barruan, beste dirulaguntza-lerro bateko jarduerak bultzatzen dituzten programak.
- Beste administrazio publikoen dirulaguntza espezifikoetarako deialdien xede diren programak.
- Alokairuak (jarduera aurrera eramateko beharrezkoak diren udal instalazioei dagozkienak salbu).

4. artikulua.- Diruz lagun daitezkeen gastuak

1. Basauriko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 28. artikulua aplikatuz, «Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak eta deialdietan edo hitzarmenetan ezarritako epean egiten direnak». Besteak beste, honako gastu hauek sartzen dira:

- Arbitroak, epaileak, kronometratzaileak.
- Kirol-teknikariak (entrenatzaileak, ordezkariak, fisioterapeutak, medikuak, harrobiko koordinatzaileak edo kategoria horien parekoak, administrazioko langileak kanpo utzita)
- Klubaren edo jokalarien kirol-lizentziak izapidetzeko kuotak / altak / tasak.
- Norgehiagokak / lehiaketak antolatzeko eta haietan parte hartzeko eskubideak.
- Kirol-mutualitateen kuotak.
- Kirol-aseguruetakoko afiliazio-kuotak.
- Klubaren, entrenatzaileen eta monitoreen erantzukizun zibileko aseguruak.
- Medikuek edo fisioterapia bezalako gastu medikoak, jarduerarako kontratatuta
- Medikuen edo fisioterapiaren gastuak kirol-federazioek antolatutako lehiaketetan parte hartzen duten elkarte, klub edo entitateentzat bakarrik izango dira diruz laguntzeko modukoak. Zenbatekoak ezin izango du, inola ere, eskatutako zenbatekoaren % 30 gainditu.
- Botikina/Farmazia-materiala (bendaje itsasgarriak, gasak, berehalako izotz-poltsak, eskularruak, eskuen desinfektatzailea, aurpegiko maskara, besteak beste).

- Kirol-material teknikoak (material inbentariagarria izan ezik, hala nola mahaia, aulkiak, etab.)
- Kirol-ekipamenduko beste gastu batzuk, jardueraren berariazkoak (babes-ekipoak eta arropa).
- Trofeoak, sariak eta kirol-ekitaldiak antolatzeke beste gastu batzuk.
- Norberaren ondasunak eta errentan hartutakoak konpontzeko, mantentzeko eta kontserbatzeko gastu txikiak.
- Bulegoko material inbentariaezina erostea.
- Faktura bat baino ez da onartuko bazkari, afari edo ospakizun gastronomikoengatik, hala nola denboraldi-amaieran edo kirol-ekitaldietan edo txapelketetan egindakoengatik, eta jardueran parte hartzen dutenentzat bakarrik; gehieneko zenbatekoa 20 €/pertsona izango da.
- Proiektuarekin lotura zuzena duten elkarteko langileen nominak eta gizarte-segurantzak.
- Joan-etorriak:

Lehiaketa, txapelketa eta liga federatuetan parte hartzeagatik egindako kilometroak; parte-hartzaileen kopuruaren arabera kalkulatu da. Kopuru hori lehiaketako akta ofizialetan benetan inskribatutako parte-hartzaileen kopurua izango da, aktan ofizialki onartutako entrenatzaileak, ordezkariak eta/edo laguntzaileak barne. Akta horiek Udalak emandako joan-etorrien gastuak justifikatzeko inprimakiarekin batera aurkeztu beharko dira, eta ez dago erregaiaren tiketak erantsi beharrik. Era berean, lehiaketen edo txapelketen egutegi ofiziala aurkeztu beharko da, konparatzeko.

Partida, norgehiagoka edo txapelketetara ibilgailu partikularrean egindako joan-etorrien gastuei dagokienez, 0,29 €/km/ibilgailu balioa aplikatu da, eta ibilgailu bakoitzean gutxienez 4 parte-hartzaile garraiatu behar izango dira; erakundearen helbide soziala hartuko da joan-etorriaren abiapuntutzat.

Bidesarien gastuetarako ere dirulaguntza eska daiteke, egiaztagiri-tiketa erantsita.

Hegazkinez, trenez edo autobusez bidaiatuz gero, dagokion faktura erantsi beharko da.

2. Jarduerarekin zeharkako lotura duten kostuetarako (telefono mugikorren fakturak, hornidurak edo aholkularitza-gastuak, besteak beste), berariazko errekerimendurik ezean, ez da agiri bidezko justifikaziorik eskatuko. Kostu horien gehieneko zenbatekoa dirulaguntza duen programaren zuzeneko kostuen % 8 izango da.

5. artikulua.- Eskabideak aurkezteko epea

Ez dira inola ere diruz lagunduko Udal Ordenantzaren 28. artikulua 4. paragrafoan adierazitakoak. Kanpoan geratzen dira, halaber:

- Aparkaleku-gastuak.
- Klubeko kirolariei nominaz kanpo emandako ordainsariak eta primak.
- Protokolo- edo ordezkaritza-gastuak
- Altzariak, ekipoak eta ondasun inbentariagarriak erosteko gastuak.
- Inbertsio- edo amortizazio-gastuak.
- Interesak, banku-kontuetako zordunketa-errekarguak, udal-tasen eta -zergen ordainagiriak eta kreditu-eragiketen eta finantza-gastuen ondoriozko gastuak.
- Isunak eta zehapen administratiboak eta penalak, bai eta prozedura judizialetako gastuak ere.

6. artikulua.- Dokumentazio espezifiko

Eskabidearekin batera, deialdi honetako xedapen orokorretan eskatutako agiriak aurkeztu beharko dira:

- Jardueren proposamena (Jarduerak_Actividades.doc).
- Aurrekontua (Aurrekontua_Presupuesto.xls).
- Federazioak konpultsatutako federatuen zerrenda, edo, hala badagokio, kirol-fitxena; izen-abizenak edo identifikazio-agiria jaso beharko ditu.
- Udalerriko parte-hartzaile kopuruaren arabera puntuak lortzeko aukera izanez gero, gainera, federatuen edo kirol-fitxen zerrendan (Federatuen-Fitxen Zerrenda_Federatuen zerrenda-Fitxhas.xls) ageri diren pertsonak errolatuta dauden udalerrira adierazi beharko da.
- Zuzendaritza Batzordeko kide direnen egiaztageria, aniztasunaren tratamenduagatik puntuak lortu nahi badira (7. E artikulua).
- Kirol-monitoreen eta, kasua denean, entrenatzaileen titulazioa.

7. artikulua.- Balorazio-irizpideak

A. ERAKUNDEARI DAGOZKION IRIZPIDEAK: 61 PUNTU

A.1 - Lizentzia federatuen eta eskola-kiroleko fitxen edo txartelen arabera: 25 puntu, gehienez.

Banakako kirolean

Basaurin errolatutakoen kopurua	25 Puntu
Federatutako lizentzia guztien eta eskola-kiroleko fitxen edo txartelen % 1 eta % 5 artean	3 puntu
Federatutako lizentzia guztien eta eskola-kiroleko fitxen edo txartelen % 6 eta % 15 artean	5 puntu

Federatutako lizentzia guztien eta eskola-kiroleko fitxen edo txartelen % 16 eta % 30 artean	8 puntu
Federatutako lizentzia guztien eta eskola-kiroleko fitxen edo txartelen % 31 eta % 45 artean	11 puntu
Federatutako lizentzia guztien eta eskola-kiroleko fitxen edo txartelen % 46 eta % 60 artean	14 puntu
Federatutako lizentzia guztien eta eskola-kiroleko fitxen edo txartelen % 61 eta % 75 artean	18 puntu
Federatutako lizentzia guztien eta eskola-kiroleko fitxen edo txartelen % 76 eta % 90 artean	21 puntu
Federatutako lizentzia guztien eta eskola-kiroleko fitxen edo txartelen % 90 baino gehiago	25 puntu

Talde-kirolean

Basaurin erroldatutakoen kopurua	25 Puntu
Federatutako lizentzia guztien eta eskola-kiroleko fitxen edo txartelen % 1 eta % 10 artean	1 puntu
Federatutako lizentzia guztien eta eskola-kiroleko fitxen edo txartelen % 11 eta % 20 artean	3 puntu
Federatutako lizentzia guztien eta eskola-kiroleko fitxen edo txartelen % 21 eta % 30 artean	5 puntu
Federatutako lizentzia guztien eta eskola-kiroleko fitxen edo txartelen % 31 eta % 40 artean	7 puntu
Federatutako lizentzia guztien eta eskola-kiroleko fitxen edo txartelen % 41 eta % 50 artean	9 puntu
Federatutako lizentzia guztien eta eskola-kiroleko fitxen edo txartelen % 51 eta % 60 artean	11 puntu
Federatutako lizentzia guztien eta eskola-kiroleko fitxen edo txartelen % 61 eta % 70 artean	14 puntu
Federatutako lizentzia guztien eta eskola-kiroleko fitxen edo txartelen % 71 eta % 80 artean	17 puntu
Federatutako lizentzia guztien eta eskola-kiroleko fitxen edo txartelen % 81 eta % 90 artean	21 puntu
Federatutako lizentzia guztien eta eskola-kiroleko fitxen edo txartelen % 90 baino gehiago	25 puntu

A.2 - Txapelketetan parte hartzeagatik: Gehienez 30 puntu

Bizkaiko txapelketan parte hartzeagatik	2 (gehienez, 6)
Euskadiko txapelketan parte hartzeagatik	3 (gehienez, 9)
Estatuko/Nazioarteko txapelketan parte hartzeagatik	5 (gehienez, 15)

A.3- Kiroleko langileen profesionalizazioa: 6 puntu, gehienez.

Kirol-monitore tituludun bakoitzeko	0,2 (gehienez, 2)
Entrenatzaile tituludun bakoitzeko	0,4 (gehienez, 4)

B. PROGRAMARI DAGOZKION IRIZPIDEAK: 20 PUNTU

B.1.- Proiektuaren kalitate teknikoa eta aurrekontua aurkeztutako aurreko proiektuarekin bat etorri izana: 8 PUNTU

Metodologia, ebaluatzeko moduak, adierazleak, giza baliabideak, baliabide materialak eta publizitatea balioztatuko dira. Horiekin batera, aintzat hartuko dira lortu beharreko xedeak eta programaren iraupena.

Eskabideek, atal honetan, 5 puntu lortu beharko dituzte, gutxienez.

Gehienez ere lor daitekeen puntuazioa, zuritu gabeko portzentajearen arabera (zeinaren ondorioz eskatutako azken dirulaguntza, zati batean ala osorik, itzuli behar izan den)	
% 95 baino gehiago justifikatu gabe	0 puntu
% 60 baino gehiago eta % 95 baino gutxiago justifikatu gabe	2 puntu
% 30 baino gehiago eta % 60 baino gutxiago justifikatu gabe	4 puntu
% 8 baino gehiago eta % 30 baino gutxiago justifikatu gabe	6 puntu
≤ % 8 justifikatu gabe	8 puntu

B.2.- Finantza-ahalegina: 12 PUNTU

Gastu totalen eta diru-sarreraren arteko proportzionaltasuna. Era berean, finantza-ahalegintzat hartuko da aurrekontuan jasotako gastuaren eta eskatutako dirulaguntzaren arteko aldea. Balioztatuko dira proposatutako programa edo jarduera aurrera eramateko finantzaketa-iturri eta baliabideak bilatzeko egindako ahaleginak.

Kaudimena (lortutako baliabide ekonomikoak)	12 puntu
Aurrekontuaren % 1 eta % 20 artean	3 puntu
Aurrekontuaren % 21 eta % 40 artean	6 puntu
Aurrekontuaren % 41 eta % 60 artean	9 puntu
Aurrekontuaren % 60 baino gehiago	12 puntu

C. ANIZTASUNAREN TRATAMENDUA: 5 PUNTU

C.1 DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK GIZARTERATZEKO AURREIKUSITAKO EKINTZAK	3 puntu
Desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzea, parte-hartzaile bakoitzeko	1 puntu (gehienez, 3)

C.2 Parte-hartzaile beteranoko (40 urtetik gorakoak edo beteranoen kategorian daudenak)	2 puntu
0	0 puntu

1etik 8ra	1 puntu
9 edo gehiago	2 puntu

D. KULTUREN ARTEKO BIZIKIDETZA SUSTATZEA: 1 PUNTU

Immigrazioa integratzeko ekintzak aintzat hartzeagatik. Proiektuan definituta agertu behar dute.	1 puntu
Bai	1 puntu
Ez	0 puntu

E. BERDINTASUNAREN ALDEKO EKINTZAK: 5 PUNTU

Emakumeen eta gizonen parte hartzea berdintasunean	5 puntu
Lizentzia federatuen edo eskola-kiroleko fitxen % 50etik gorako parekotasuna edo ehunekoa	3 puntu
Emakumeak erakundearen erabaki- eta ordezkaritza-organoetan % 40ko edo gehiagoko partaidetza izatea.	1 puntu
Parekotasuna edo kirol-teknikarien guztizkoaren % 40tik gorako ehunekoa	1 puntu

F. EUSKARA SUSTATZEA ETA ZABALTZEA: 3 PUNTU

Hizkuntza-normalizazioan inplikatzegatik Proiektuan definituta agertu behar da.	3 puntu
Euskararen erabilera parekidea edo lehentasunezkoa jardueren garapenean	1 puntu
Euskararen erabilera eksklusiboa jardueren garapenean.	3 puntu

G. BESTERIK: 5 PUNTU

Udal jardueretan edota udalerriko beste elkarteek Udalarekin lankidetzan antolatutako horietan laguntzea.

Udal jardueretan laguntzea	5 puntu
Parte-hartze edo lankidetzak bakoitzeko (gehienez ere, 5 puntu)	1 puntu

Lankidetzak proiektuan zerrendatuta agertu beharko dira, eta bakar-bakarrik balioztatuko dira dirulaguntza espezifikorik jaso ez duten parte-hartze edo lankidetzak proposamenak.

Edozelan ere, Atalak egiaztatu ahal izango du aitortutako lankidetzak benetakoak izan direla.

8. artikulua.- Dirulaguntza emateko prozedura

Lehenengo aldiz eskatuz gero, dirulaguntzaren zenbatekoa 250,00 eurokoa izango da gehienez.

Ildo horretan, 5 urteko epean dirulaguntzen eskabiderik ez duten erakundeak, lehenengo eskaeratzat hartuko dira.

9. artikulua.- Hirugarrenak azpikontratatzea

Udal dirulaguntzak emateko Ordenantzaren 27. artikuluan ezarritako baldintzetan.

Dirulaguntza-lerroa	KIROL-JARDUERAK
Diruz laguntzeko kontzeptua	KIROL-EKITALDI ZEHATZAK EGITEA
Aurrekontu-partida	103.3411.48188
Partidaren deskribapena	TRANSF. ARR., HERRI-KIROLA SUSTATZEKO KANPAINAK
Zenbatekoa	110.000,00 €
Dirulaguntza emateko prozedura	NORGEHIAGOKA

1. artikulua.- Eremua eta xedea

Basauriko Udaleko Kirol Atalak, Kirolaren eremuan, deialdia egin du dirulaguntzak emateko «Kirol-ekitaldi zehatzak egitea» izeneko dirulaguntzen lerroan. Horrek Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren helburua lortzen laguntzen du, hots, «Kirol-ekitaldi puntualen antolamendua eta gauzatzea sustatzea Basaurin egiten direnean». Horren bidez, kirol-elkarteen eta klubien jarduera zehatzak sustatzen dira eta, hala, herritarrentzako kirola, eta kirol-erakundeak eta -elkarteak sortzea eta arlo horretako boluntariotza bultzatzen dira.

Diruz lagundutako jarduerak gauatzeko epea: **2025. urtea.**

2. artikulua.- Erakunde onuradunak

1. Kirol-elkarteei eta klubei, Basauriko Udalaren Elkarteen Erregistroan izena emandako erakundeei, edo/eta udalerriko biztanleei zuzendutako jarduerak edo programak garatzen dituztenei.

2. Irabazi-asmorik gabeko erakundeen kasuan (elkarteak eta fundazioak), Basauriko Udalaren Herritarren Partaidetzarako Erakundeen Erregistroan inskribatuta egon beharko dute, eta haien datuak eguneratuta izan beharko dituzte (Modernizazioaren arloa, Kareaga Goikoa 52). Tel.: 944666300).

Salbuespen gisa, udalerrian egoitza sozialik ez duen eta, beraz, aipatutako udal-erregistroan sartzeko aukerarik ez duen erakunde batek Basaurin jardueraren bat puntualki egitea planteatzen badu, Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistro Orokorrean edo dagokion erregistro publikoan inskribatzeko eskatuko zaio.

3. Kanpoan geratzen dira:

- a) Ikastetxeak
- b) Elkartek eta udalaz kanpoko beste edozein erakunde, baldin eta kirol arloan jarduten ez badute.
- c) Kirol-jarduerak (besteak beste) antolatzeko dirulaguntza jasotzen duten elkartek. Azken horiek ezingo dute dirulaguntzarik jaso, baldin eta jarduerak dagoeneko aurreikusita badaude dirulaguntza izendunean.

3. artikulua.- Diruz lagun daitekeen jarduera

1. Kirol-ekitaldi zehatzak antolatu eta egitea, bakar-bakarrik, Basauri udalerrian garatzen badira nagusiki.

2. Bazter utzitakoak:

- Basauriko udal dirulaguntzen deialdi barruan, beste dirulaguntza-lerro bateko jarduerak bultzatzen dituzten programak.
- Beste administrazio publikoen dirulaguntza espezifikoetarako deialdien xede diren programak.
- Beste udalerrietan egindako jarduera zehatzak.

4. artikulua.- Diruz lagun daitezkeen gastuak

1. Basauriko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 28. artikulua aplikatuz, «Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak eta deialdietan edo hitzarmenetan ezarritako epean egiten direnak». Besteak beste, honako gastu hauek sartzen dira:

- Arbitroak, epaileak, kronometratzaileak.
- Kirol-teknikariak (entrenatzaileak, ordezkariak, fisioterapeutak, medikuak, harrobiko koordinatzaileak edo kategoria horien parekoak, administrazioako langileak kanpo utzita)
- Klubaren edo jokalarien kirol-lizentziak izapidetzeko kuotak / altak / tasak.
- Norgehiagokak / lehiaketak antolatzeko eta haietan parte hartzeko eskubideak.
- Kirol-mutualitateen kuotak.
- Kirol-aseguruetakoko afiliazio-kuotak.
- Klubaren, entrenatzaileen eta monitoreen erantzukizun zibileko aseguruak.
- Anbulantziak, medikuak edo fisioterapia bezalako gastu medikoak, jarduerarako kontratatuta.
- Medikuen edo fisioterapiaren gastuak kirol-federazioek antolatutako lehiaketetan parte hartzen duten elkarte, klub edo entitateentzat bakarrik izango dira diruz laguntzeko modukoak. Zenbatekoak ezin izango du, inola ere, eskatutako zenbatekoaren % 30 gainditu.
- Botikina/Farmazia-materiala (bendaje itsasgarriak, gasak, berehalako izotz-poltsak, eskularruak, eskuen desinfektatzailea, aurpegiko maskara, besteak beste).
- Kirol-material teknikoa (material inbentariagarria izan ezik, hala nola mahaia, aulkiak, etab.)

- Kirol-ekipamenduko beste gastu batzuk, jardueraren berariazkoak (babes- ekipoak eta arropa).
- Trofeoak, sariak eta kirol-ekitaldiak antolatzeke beste gastu batzuk.
- Norberaren ondasunak eta errentan hartutakoak konpontzeko, mantentzeko eta kontserbatzeko gastu txikiak.
- Bulegoko material inbentariaezina erostea.
- Faktura bat baino ez da onartuko bazkari, afari edo ospakizun gastronomikoengatik, hala nola denboraldi-amaieran edo kirol-ekitaldietan edo txapelketetan egindakoengatik, eta jardueran parte hartzen dutenentzat bakarrik; gehieneko zenbatekoa 20 €/pertsona izango da.
- Proiektuarekin lotura zuzena duten elkarteko langileen nominak eta gizarte-segurantza.
- Joan-etorriak:

Lehiaketa, txapelketa eta liga federatuetan parte hartzeagatik egindako kilometroak; parte-hartzaileen kopuruaren arabera kalkulatu da. Kopuru hori lehiaketako akta ofizialetan benetan inskribatutako parte-hartzaileen kopurua izango da, aktan ofizialki onartutako entrenatzaileak, ordezkariak eta/edo laguntzaileak barne. Akta horiek Udalak emandako joan-etorrien gastuak justifikatzeko inprimakiarekin batera aurkeztu beharko dira, eta ez dago erregaiaren tiketak erantsi beharrik. Era berean, lehiaketen edo txapelketen egutegi ofiziala aurkeztu beharko da, konparatzeko. Partida, norgehiagoka edo txapelketetara ibilgailu partikularrean egindako joan-etorrien gastuei dagokienez, 0,29 €/km/ibilgailu balioa aplikatu da, eta ibilgailu bakoitzean gutxienez 4 parte-hartzaile garraiatu behar izango dira; erakundearen helbide soziala hartuko da joan-etorriaren abiapuntutzat.

Bidesarien gastuetarako ere dirulaguntza eska daiteke, egiaztatutako tiketak erantsita.

Hegazkinez, trenez edo autobusez bidaiatuz gero, dagokion faktura erantsi beharko da.

2. Jarduerarekin zeharkako lotura duten kostuetarako (telefono mugikorren fakturak, hornidurak edo aholkularitza-gastuak, besteak beste), berariazko errekerimendurik ezean, ez da agiri bidezko justifikaziorik eskatuko. Kostu horien gehieneko zenbatekoa dirulaguntza duen programaren zuzeneko kostuen % 8 izango da.

5. artikulua. Baztertutako gastuak

Ez dira inola ere diruz lagunduko Udal Ordenantzaren 28. artikuluan 4. paragrafoan adierazitakoak eta jarduerarekin lotura zuzenik ez dutenak, kanpoan geratzen dira halaber:

- Aparkaleku-gastuek ez dute dirulaguntzarik izango.

- Klubeko kirolariei nominaz kanpo emandako ordainsariak eta primak.
- Protokolo- edo ordezkaritza-gastuak.
- Altzariak, ekipoak eta ondasun inbentariagarriak erosteko gastuak.
- Inbertsio- edo amortizazio-gastuak.
- Interesak, banku-kontuetako zordunketa-errekarguak, udal-tasen eta –zergen ordainagiriak eta kreditu-eragiketen eta finantza-gastuen ondoriozko gastuak.
- Isunak eta zehapen administratiboak eta penalak, bai eta prozedura judizialetako gastuak ere.

6. artikulua.- Dokumentazio espezifikoa

1. Zenbait jarduera egiteko dirulaguntza eskatzen duten erakundeek eskabide bakarra aurkeztu behar dute, jarduera guztiak jasoko dituen.

2. Eskabidearekin batera, deialdi honetako xedapen orokorretan eskatutako agiriak aurkeztu beharko dira, bai eta honako hauek ere:

- Jardueren proposamena (Jarduerak_Actividades.doc).
- Aurrekontua (Aurrekontua_Presupuesto.xls).
- Zuzendaritza Batzordeko kide direnen egiaztageria, aniztasunaren tratamenduagatiko puntuak lortu nahi badira (7 C atala).
- Eskatutako azken dirulaguntzaren parte-hartzaileen zerrenda, non erroldatuta dauden adierazten duena.

7. artikulua.- Balorazio-irizpideak

A. ERAKUNDEARI DAGOZKION IRIZPIDEAK: 5 PUNTU

Basaurikoa EZ den elkarte, klub edo erakundeak	0 puntu
Basauriko elkarte, klub edo erakundeak	5 puntu

B. PROGRAMARI DAGOZKION IRIZPIDEAK: 55 PUNTU

2. Basauri Kirolakek Lehen Hezkuntzako ikasleentzat antolatutako igeriketa-ikastaroei dagokienez, ikastetxe bakoitzeko, maila bakarraren garraio-gastuak bakarrik ordainduko dira.

4. Artikulua.- Dokumentazio espezifikoa

Eskabidearekin batera, deialdi honetako xedapen orokorretan eskatutako agiriak aurkeztu beharko dira, bai eta honako hauek ere:

- Jardueren proposamena (Jarduerak_Actividades.doc).
- Aurrekontua (Aurrekontua_Presupuesto.xls).
- Eskola Kontseiluaren alde aurretiko txostena, non jasoko baita onetsi egin dituela diruz lagundu beharreko jarduerak.
- Eusko Jaurlaritzan aurkeztutako dirulaguntza-eskaera, eta, berau ebatzita egonez gero, ebazpenaren jakinarazpena.

5. Artikulua.- Balorazio-irizpideak

A) FINANTZA-AHALEGINA: 20 PUNTU

Gastu totalen eta diru-sarreraren arteko proportzionaltasuna. Era berean, finantza ahalegintzat hartuko da aurrekontuan jasotako gastuaren eta eskatutako dirulaguntzaren arteko aldea. Balioetsi egingo dira proposatutako programa edo jarduera aurrera eramateko finantzaketa-iturri eta baliabideak lortzeko egindako ahaleginak.

KAUDIMENA (lortutako baliabide ekonomikoak)	20 puntu
Aurrekontuaren % 1 - % 20	5 puntu
Aurrekontuaren % 21 - % 40	10 puntu
Aurrekontuaren % 41 - % 60	15 puntu
Aurrekontuaren % 60 baino gehiago	20 puntu

B) AURKEZTUTAKO AURREKO PROIEKTUAREN AURREKONTURA
EGOKITZEA: 25 PUNTU

Balioetsi egingo da programak segida izatea.

Gehienez ere lor daitekeen puntuazioa, zuritu gabeko portzentajearen arabera (zeinaren ondorioz eskatutako azken dirulaguntza, zati batean ala osorik, itzuli behar izan den)	
% 95 baino gehiago zuritu gabe	6 puntu
% 60 baino gehiago eta % 95 baino gutxiago zuritu gabe	18 puntu
% 30 baino gehiago eta % 60 baino gutxiago zuritu gabe	20 puntu
% 8 baino gehiago eta % 30 baino gutxiago zuritu gabe	23 puntu
% 8 edo gutxiago zuritu gabe	25 puntu

C) PROGRAMAREN ANTOLAKETA: 25 PUNTU

PROGRAMAREN ANTOLAKETA	25 PUNTU
Ikastetxeko ikasle kopurua	10 puntu
300 ikasle arte	8 puntu
300-400 ikasle	9 puntu
400 ikasle baino gehiago	10 puntu
Garraioa edo jolastokiak erabiltzen dituztenen kopurua	7 puntu
Ikastetxeko ikasleen % 10era arte	5 puntu
Ikastetxeko ikasleen % 10 baino gehiago eta % 25 baino gutxiago	6 puntu
Ikastetxeko ikasleen % 25 edo gehiago	7 puntu
Antolaketa-lanetan parte hartzen dutenen kopurua	8 puntu
3 lagun arte	6 puntu
3 lagun baino gehiago	8 puntu

D) ERAKUNDEA. Kide kopurua: 20 PUNTU

0-100	10 puntu
101-200	15 puntu
200 baino gehiago	20 puntu

* Dirulaguntza ez badu IGEak eskatzen, puntu horiek balioetsiko dira jarduera antolatzen parte hartzen duten pertsonen kopuruaren arabera.

E) BERDINTASUNAREN ALDEKO EKINTZAK: 5 PUNTU

Zuzendaritza-batzordean eta/edo ordezkaritza-organoan presentzia paritarioa izatea.	5 puntu
Bai	5 puntu
Ez	0 puntu

F) DESGAITASUNAK DITUZTEN PERTSONAK JARDUERETAN PARTE HARTZEKO EKINTZAK: 5 PUNTU

Desgaitasunak duten pertsonak jardueretan parte hartzeko ekintzak aurreikustea. Proiektuak jasota agertu behar dira	5 puntu
Dirulaguntzaren xede diren jardueretako parte-hartzaileen integrazioa sustatzen duten ekintzak.	3 puntu
Zuzendaritza-batzordean eta/edo ordezkaritza-organoan integratzeko ekintzak.	2 puntu

6. Artikulua.- Dirulaguntza emateko prozedura

Lehenengo aldiz eskatuz gero, dirulaguntzaren zenbatekoa 250,00 eurokoa izango da gehienez.

Ilido horretan, 5 urteko epean dirulaguntzen eskabiderik ez duten erakundeak, lehenengo eskaeratzat hartuko dira.

7. Artikulua.- Hirugarrenak azpikontratatzeari

Udal dirulaguntzak emateko Basauriko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 27. artikuluan ezarritako baldintzetan egingo da.

Dirulaguntza-lerroa	HEZKUNTZA ARLOKO JARDUERAK
Diruz laguntzeko kontzeptua	IKASLEEN GURASO ELKARTEEK, IKASKETA KOOPERATIBEK ETA IKASTETXE ITUNDUEK EGINDAKO JARDUERAK
Aurrekontu-partida	81.3241.48177
Partidaren deskribapena	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK IAGE-EI, IKASTETXE PUBLIKOAK
Zenbatekoa	3.500,00 €
Dirulaguntza emateko prozedura	NORGEHIAGOKA

1. Artikulua.- Eremua eta xedea

Basauriko Udaleko Hezkuntza Atalak, Hezkuntzaren esparruan, dirulaguntzak emateko deialdia egiten du, «ikasleen guraso elkarteek, ikasketa kooperatibek eta ikastetxe itunduek egindako jarduerak» izeneko dirulaguntza-lerroan. Horrela, Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren helburua lortzen lagundu nahi da, alegia, «hezkuntza- proiektuaren kalitatea hobetzeko hezkuntza-ekimenetan ikasleen gurasoek parte har dezatela sustatzea».

Era berean, hezkuntzari laguntzeko jarduerak eta ekimenak egitea sustatzen da, familia eta lana bateratzen laguntzeko, ikasleen eta haien guraso eta tutoreen parte- hartzea eta topaketa errazteko, eta, besteak beste, bizikidetza, elkartasuna eta integrazioa bezalako balioak sustatzeko.

Diruz lagundutako jarduerak gauzatzeko epea: 2024/2025 ikasturtea.

2. Artikulua.- Erakunde onuradunak

1. Honako hauek eska dezakete dirulaguntza:

- a) Udalerriko kooperatibak edo ikastetxe itunduak.
- b) Ikastetxe horietako guraso-elkarteek (IGE).

2. Ikastetxeek IGEk eskatzen ez duen kasuetan bakarrik eskatu ahal izango du, eta alderantziz.

33. Irabazi-asmorik gabeko erakundeek Basauriko Udalaren Herritarren Partaidetzarako Erakundearen Erregistroan izena emanda eta datuak eguneratuta izan beharko dituzte (Modernizazioaren arloa, Kareaga Goikoa 52). Tel.: 944666300).

Salbuespen gisa, udalerrian egoitza sozialik ez duen eta, beraz, aipatutako udal-erregistroan sartzeko aukerarik ez duen erakunde batek Basaurin jardueraren bat

puntualki egitea planteatzen badu, Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistro Orokorrean edo dagokion erregistro publikoan inskribatzeko eskatuko zaio.

4. Erakunde eskatzaileek egunean izan beharko dituzte zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak, Foru-Ogasunekikoak eta Basauriko Udalarenak, dirulaguntza eman, betebeharra onartu eta ordaindu aurretik.

3. Artikulua.- Diruz lagun daitekeen jarduera eta eska daitekeen gehieneko kopurua.

1. Eskabideek jarduera/proiektu bat baino gehiago jaso ahal izango dituzte. Ez da onartuko eskatzaile beraren eskaera bat baino gehiago.
2. Hezkuntza-denbora librea aktiboki sustatzen duten programak, haur eta gazteei zuzendutako aisialdiko eta aisialdiko programak egiten dituztenak, bai eta ikastetxean ematen diren ikasleei zuzendutako saioak, hitzaldiak edo tailerrak ere.

a) Helburuak.

Ikastetxearen jarduera eskola-orduetatik kanpo sustatzea, ikasturte honetan honako hauek egiteko:

- a. Ikasleen ikuspegi artistiko-kulturala zabaltzeari buruzko alderdietan prestakuntza integrala emateko jarduerak, betiere hezkuntza-proiektuarekin zerikusia badute eta ikastetxeko hezkuntza-komunitateak erabilgarritzat jotzen baditu.
- b. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen inklusioa sustatzeko eta ikasleen parte-hartzea errazteko jarduerak.

a) Betekizunak eta zehaztapenak

Eskola-orduetatik kanpo egingo dira. Ondorio horietarako, jantokiko denbora librea eskolarik gabeko ordutzat hartzen da.

c) Bazter utzitakoak:

- i. Haur eta gazteei zuzendutako aisialdiko eta denbora libreko jarduerak sustatzen dituzten programak, Basauriko Udalaren dirulaguntzen udal-deialdiaren barruan beste dirulaguntza ildo batzuk jasotzen dituztenak.
- ii. Guraso-elkarteen prestakuntza-jarduerak, beren interesekoak diren arloetakoak eta Basauriko Udalaren "Guraso Eskola" programaren barruan daudenak.
- iii. Ikasketa-bidaia, txangoak edo irteera didaktikoak.

- iv. Eskola-egutegiko jaiegunekin lotutako jarduerak (Gabonak, inauteriak...), efemeride-egunak, ikasturte amaierako eta graduazioko jaiak, etab.
- v. Ondasun higiezinak aldarazten duten eraikin eta instalazioen elementu finkoak instalatzea, eraberritzea edo mantentze-lanak egitea, patioak barne.
- vi. Ikastetxetik kanpo egiten diren jarduerak gehienak, ikasturtean zehar jarraipenik ez dutenak.

4. Artikulua.- Dokumentazio espezifikoak

Eskabidearekin batera, deialdi honetako xedapen orokorretan eskatutako agiriak aurkeztu beharko dira, bai eta honako hauek ere:

- Jardueren proposamena (Jarduerak_Jarduerak.doc)
- Aurrekontua (Aurrekontua_Aurrekontua.xls)
- Ikastetxeko zuzendaritzaren aldeko aurreko txostena, diruz lagunduko diren jarduerak onartzen dituenak.
- Erantzukizun zibileko aseguria

5. Artikulua.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak:

Basauriko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 28. artikulua aplizatuz, *“Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari zalararik gabe erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak eta deialdietan edo hitzarmenetan ezarritako epean egiten direnak.”* Besteak beste, honako gastu hauek sartzen dira:

- Material inbentarioezina eskuratzea.
- Ikastetxetik kanpo unean-unean egin behar diren jardueretarako beharrezkoak diren garraio-gastuak, betiere eskolaz kanpoko jardueratzat hartzen badira.
- Jarduera egiteko behar den arropa.
- Ondasun higigarri propioak eta errentan hartutakoak konpontzeko, mantentzeko eta kontserbatzeko gastu txikiak.
- Proiektuarekin zuzenean lotutako elkarteko langileen nominak eta Gizarte Segurantzak.
- Jarduera garatzeko behar den aseguruaren gastuak, Ikasleen Gurasoen Elkartek zuzenean kontratatzen badu.
- Dirulaguntzaren xede den jarduera Balio Erantsiaren gaineko Zergarik gabe badago, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren 20. artikuluen lehenengo paragrafoaren 9. zenbakian

xedatutakoaren arabera, diruz lagundu daitekeen gastutzat hartuko da zerga honen balioa, baldin eta inguruabar horren erantzukizunpeko adierazpena edo Elkartek BEZa berreskuratu ezin duela adierazten badu.

7/1994 Foru Arauaren 20. artikulua, 1. idatz-zatia, 9. zenbakia:

"Haurren eta gazteen hezkuntza, haurren zaintza eta jagoletza, ikastetxeetan eskola-jantokian edo eskola-orduetatik kanpo haurtzaindegiz-erbitzuan dauden geletan haurrak zaintzea barne, eskolako, unibertsitateko eta graduatu-ondoko irakaskuntza, hizkuntzen irakaskuntza eta lanbide-prestakuntza eta -birziklatzea, zuzenbide publikoko erakundeek edo jarduera horiek gauzatzeko baimendutako erakunde pribatuek eginak."

Udal Ordenantzaren 28. artikulua 4. atalean adierazitakoak ez dira inola ere diruz lagunduko. Honako gastu hauek ere kanpoan geratzen dira:

- Lokalen egokitzea, erosketak edo inbertsioak.
- Altzari, ekipo eta ondasun inbentariagarriak.
- Lokalak alokatzea.

6. Artikulua.- Balorazio-irizpideak

A) AURREKONTUA AURKEZTUTAKO AURREKO PROIEKTURA EGOKITZEA: 10 PUNTU

Jarduerak eta aurreikusitako emaitzak proiektuaren arabera jarduerak edo programak lortu nahi dituen helburuetara egokitzen diren baloratuko da.

Gehienez ere lor daitekeen puntuazioa, zuritu gabeko portzentajearen arabera (zeinaren ondorioz eskatutako azken dirulaguntza, zati batean ala osorik, itzuli behar izan den)	
% 95 baino gehiago zuritu gabe	0 puntu
% 60 baino gehiago eta % 95 baino gutxiago zuritu gabe	2 puntu
% 30 baino gehiago eta % 60 baino gutxiago zuritu gabe	5 puntu
% 8 baino gehiago eta % 30 baino gutxiago zuritu gabe	8 puntu
% 8 edo gutxiago justifikatu gabe	10 puntu

B) JARDUERAK: 15 PUNTU

JARDUERA KOPURUA	
Jarduera 1	2 puntu
2 jarduera	3 puntu
3 jarduera	5 puntu
4 jarduera	10 puntu
5 jarduera edo gehiago	15 puntu

C) FINANTZA-AHALEGINA: 10 PUNTU

Gastu totalen eta diru-sarreraren arteko proportzionaltasuna. Era berean, finantza ahalegintzat hartuko da aurrekontuan jasotako gastuaren eta eskatutako dirulaguntzaren arteko aldea.

Balioetsi egingo dira proposatutako programa edo jarduera aurrera eramateko finantzaketa-iturri eta baliabideak lortzeko egindako ahaleginak.

KAUDIMENA (lortutako baliabide ekonomikoak)	20 puntu
Aurrekontuaren % 1 - % 30	5 puntu
Aurrekontuaren % 31 - % 60	8 puntu
Aurrekontuaren % 60 baino gehiago	10 puntu

D) DESGAITASUNAK DITUZTEN PERTSONAK JARDUERETAN PARTE HARTZEKO EKINTZAK: 9 PUNTU

Jarduerak garatzeko behar bereziak dituzten haurren parte-hartzeagatik	
2 puntu parte-hartzaile bakoitzeko. Gehienez 9 puntu.	9 puntu

E) KULTUREN ARTEKO BIZIKIDETZA SUSTATZEA: 5 PUNTU

Kultura-aniztasuna, eta migrazioei eta lurraldean babes hartzeari berariaz lotutako alderdiak kontuan hartzen dituzten programak, zeinak egoera horiek aintzatetsi eta ikusarazteko helburu eta ekintzak aurreikusiko baitituzte. Horien helburua izango da berdintasuna sustatzea, diskriminazioaren aurka borrokatzea eta aniztasun-testuinguruetan elkarrekintza positiboa bultzatzea.	
BAI	5 puntu
EZ	0 puntu

F) BERDINTASUNAREN ALDEKO EKINTZAK: 10 PUNTU

Baliabideak **(ekonomikoak, sozialak, kulturalak, denbora, aisialdia, partaidetza soziala eta politikoa, enplegua, Osasuna)** eskuratu eta kontrolatzeari dagokionez emakumeen eta gizonen arteko berdintasunik eza kontuan hartzen duten programak; eta/edo... **emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko eta/edo genero-indarkeria desagerrarazteko helburuetan, ekintzetan eta/edo neurri zehatzetan kontuan hartzen dituztenak. Ekintzak proiektuan definituta agertu behar dira.**

Bai	5 puntos
Ez	0 puntos

Erabaki-organoaren osaera	
Erabaki-organoaren osaera:bi sexuek dute ordezkaritza	5 puntos
Erabaki-organoa emakumeek bakarrik osatzen dute.	0 puntos

G) EUSKARA SUSTATZEA ETA ZABALTZEA: 8 PUNTU

Euskararen erabileraren normalizazioan inplikatzeari. Proiektuan definituta agertu behar du.	
Euskararen erabilera parekidea edo lehentasunezkoa jardueren garapenean	4 puntu
Euskararen erabilera eksklusiboa jardueren garapenean.	8 puntu

H) PROGRAMA ANTOLATZEA ETA UDAL-PROGRAMETAN PARTE HARTZEA: 23 PUNTU

Prestakuntza	3 puntu
Ikasleei zuzendutako prestakuntza	3 puntu
Jardueretan parte hartu dutenen ehunekoa ikasle kopuru osoarekiko	9 puntu
Ikasleen % 10era arte	5 puntu
% 10 baino gehiago eta % 25 baino gutxiago	7 puntu
% 25 baino gehiago	9 puntu
Jarduera antolatzen eta ematen parte hartu duten pertsonen kopurua	5 puntu
3 pertsona gehienez	3 puntu
3 pertsona baino gehiago	5 puntu
Udal programetan parte hartzea	6 puntu
Jarduera bakoitzeko puntuak, gehienez 6 guztira	2 puntu

Lankidetzak proiektuan zerrendatuta agertu beharko dira, eta berariazko dirulaguntzarik jaso ez duten jardueretan parte hartzea eta/edo lankidetzaren proposamena soilik baloratuko da.

Sailak, nolanahi ere, deklaraturako kolaborazioen egiazkotasuna kontrastatu ahal izango du.

I) ERAKUNDEA: 10 PUNTU

KIDE DIREN PERTSONEN KOPURUA	10 puntu
0-100	10 puntu
101 - 200	8 puntu
200 baino gehiago	5 puntu

** Dirulaguntza ez badu IGEak eskatzen, puntu horiek balioetsiko dira jarduera antolatzen parte hartzen duten pertsonen kopuruaren arabera.*

7. Artikulua.- Dirulaguntza emateko prozedura

Lehenengo aldiz eskatuz gero, dirulaguntzaren zenbatekoa 250,00 eurokoa izango da gehienez.

Ildo horretan, 5 urteko epean dirulaguntzen eskabiderik ez duten erakundeak, lehenengo eskaeratzat hartuko dira.

8. Artikulua.- Hirugarrenak azpikontratatzeari

Udal dirulaguntzak emateko Basauriko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 27. artikuluan ezarritako baldintzetan egingo da.

ERANSKINA EUSKERA

Dirulaguntza lerroa	EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEA
Diruz laguntzeko kontzeptua	ASTIALDIKO MONITORE- EDO ZUZENDARI-TITULU OFIZIALAK LORTZEKO FORMAZIOA EUSKARAZ EGITEA SUSTATZEA, BAI ETA GIZARTE ETA KULTURA-DINAMIZATZAILE FORMAZIOA
Aurrekontu partida	71 3351 48013
Partidaren deskribapena	Transf. arr., begiraleen ikastaroak, EUSKARAREN GIZARTE-SUSTAPENA
Zenbatekoa	2.000,00 €
Dirulaguntza emateko prozedura	LEHIAKETA SINPLEA

Basaurik Udaleko Euskara Atalak, euskara gizarteratzeko eremuan deialdia egin du dirulaguntzak emateko euskararen erabilera sustatzeko, zehatz-mehatz Astialdiko Monitore edo Zuzendari titulu ofizialak lortzeko formazioa euskaraz egitea sustatzeko, bai eta Gizarte eta Kultura Dinamizatzaile formazioa. Horrela, Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren helburua lortzen laguntzen du, hots, udalerrian euskararen erabilera sustatzea, Basauriko Udalean euskara sustatzeko indarrean duen plan estrategikoa betez.

Horren arabera, Basauriko Udalak oinarri arautzaileak ezarri ditu, Kultura-Politika eta Euskara Arloaren bitartez, astialdiarekin orokorrean lotutako prestakuntza ofiziala euskaraz egin nahi duten basauriarrei laguntzeko.

1. XEDEA:

Astialdiko begirale edo zuzendari titulu ofiziala edota gizarte eta kultura sustatzaile titulu ofiziala lortzeko prestakuntza euskaraz egitea sustatzea.

2. NORI ZUZENDUA:

Udalerrian erroldatutako gazteei.

3. DIRUZ LAGUN DAITEKEEN JARDUERA:

Astialdiko begirale edo zuzendari titulu ofiziala, Eusko Jaurlaritzakoa lortzeko ikastaroak euskaraz egitea 2023/2024 eta 2024/2025 ikasturteetan zehar. Ikastaro horiek Eusko Jaurlaritzak homologatutako zentro batean egin beharko dira, eta, edozelan ere, dirulaguntza hau eskatzeko beharrezkoa izango da titulua lortu izana. Berdin egingo da Gizarte eta Kultura Dinamizatzaile titulu ofiziala lortzeko ikastaroekin.

BAZTER UTZITAKOAK:

Astialdiko begirale titulu ofiziala, Basauriko Gaztegunek antolatutako formazioaren bitartez egiten duenak ez du dirulaguntzarik jasoko, Udalak prezio bereziak ezarri bait ditu, merkatuan daudenak baino merkeago.

4. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA:

Eskabide-orka aurkeztu beharko da, honako dokumentu hauekin batera:

- Eusko Jurlaritzak homologatutako zentroaren egiaztagiria, matrikularen zenbatekoa adierazita; eta dagokion ordainagiria.
- 2023/2024 edo 2024/2025 ikasturteetan lortutako eta Eusko Jurlaritzak jaulkitako titulu ofizialaren fotokopia (edota hura izapidetzen ari dela dioen Eusko Jurlaritzaren egiaztagiria).
- NAN-A/AIZ/PASAPORTEA
- Hirugarrenaren fitxa, bankuaren zigiluarekin.
- Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin zorrik ez dagoela jasotzen duen erantzukizunpeko aitortpena.
- Basauriko udal dirulaguntzak emateko Ordenantzaren 10. artikuluan ezarritako debekurik ez dagoela jasotzen duen erantzukizunpeko aitortpena.

5. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA:

Deialdian agertzen dena.

6. BALDINTZAK:

- Basaurin erroldatuta egotea.
- Eusko Jurlaritzaren titulu ofiziala (edota hura izapidetzen ari dela jasotzen duen egiaztagiria) izatea.
- Ikastaroak euskaraz izan beharko dira.
- Ikastaroak Eusko Jurlaritzak homologatutako erakundeek eman beharko dituzte.

7. DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA:

Oro har, diruz laguntzeko zenbatekoa ezingo da izan ikastaroko matrikularen % 50 baino handiagoa.

8. DIRULAGUNTZAK ESLEITZEKO IRIZPIDEAK:

Erregistro-hurrenkerari jarraituko zaio, zorrotz-zorrotz, ordainketak egiteko (aurrekontu-zuzkidura dagoen bitartean).

Partida agortzen denean, eskabidea hurrengo epealdian ordaintzeko zain geratuko da, eskabide berririk aurkezteko beharrik gabe.

Dirulaguntzaren onuradunen baldintzak ez dira aldatu ekitaldi batetik bestera; beraz, deialdi honek barne hartuko ditu Batzorde Kalifikatzaileak (kasu honetan Hezkuntza, Kultura eta Euskarako Informazio Batzordeak) jaso eta onetsitako erreklamazioak, hain zuzen ere, aurreko ekitaldiko dirulaguntza lerro berdinean emandako edota ukatutako diru- laguntzei buruzkoak.

9. ONURADUNEN BETEBEHARRAK:

Udal dirulaguntzak emateko Ordenantzaren 8. artikuluan ezarritakoak; bereziki, dirulaguntza eman duen organoaren aurrean egiaztatzea jarduera egin dela, eta dirulaguntzaz gozatzeko ezarritako helburua bete dela.

Dirulaguntza lerroa	EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEA
Diruz laguntzeko kontzeptua	EUSKARA IKASTEA SUSTATZEA
Aurrekontu partida	71 3351 48099
Partidaren deskribapena	Transf. arr. familiei, EUSKARAREN GIZARTE-SUSTAPENA
Zenbatekoa	35.000,00 €
Dirulaguntza emateko prozedura	LEHIAKETA SINPLEA

Basauriko Udaleko Euskara Atalak, euskara gizarteratzeko eremuan deialdia egin du dirulaguntzak emateko euskararen erabilera sustatzeko, euskara ikastea sustatzeko, euskara gaitasuna lortzeko eta euskara maila hobetzeko. Horrela, Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren helburua lortzen laguntzen du, hots, udalerrian euskararen erabilera sustatzea, Basauriko Udalean euskara sustatzeko indarrean duen plan estrategikoa betez.

Horren arabera, Basauriko Udalak oinarri arautzaileak ezarri ditu, Kultura-Politika eta Euskara Arloaren bitartez, euskararen ikaskuntza sustatzeko HABEk homologatutako zentroetan emandako ikastaroetan.

1. XEDEA:

Basauriarren euskalduntze eta alfabetatzea sustatzea.

2. NORI ZUZENDUA:

Udalerrian erroldatutako 16 urtetik gorakoei.

3. DIRUZ LAGUN DAITEKEEN JARDUERA:

2024/2025 ikasturtean zehar:

- HABEk homologatutako euskalduntze edo alfabetatze ikastaroak egitea, HABEk homologatutako euskaltegietan.

BAZTER UTZITAKOAK:

Prestakuntza Basauriko Udal Euskaltegian edota hizkuntza eskola ofizialetan egiten dutenak.

2025eko udan:

- Euskal Herriko unibertsitateek egindako ikastaroetan parte hartzea (Udako Euskal Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Mondragon Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea). Horietako bakoitzaren

egitarauan hala jotako ikastaroak izan beharko dira, eta euskaraz izango dira, oso-osorik.

4. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA:

Eskabide-orria aurkeztu beharko da (Eskabidea_Solicitud.doc), honako dokumentu hauekin batera:

1. Euskaltegiaren egiaztagiria, non honako hauek agertuko baitira: matrikularen zenbatekoa; lortutako eta, hala badagokio, gaitututako maila edo mailak; ikasleak eskoletan emandako ordu-kopuru totala; ikastaroaren ordu-kopuru totala; eta bertaratze-portzentajea.
2. Udako Euskal Unibertsitatearen edo dagokion unibertsitatearen egiaztagiria, honako datu hauekin: matrikularen kostua; egindako ikastaroa; bertaratzea; eta lortutako etekina.
3. Inguruabar pertsonalei buruzko egiaztagiria, egoera pertsonala eta errenta-maila aintzat hartzeko eskaera egin den kasuetan, Oinarri hauen 8. atalean xedatutakoaren arabera.
4. NANA / AIZ / Pasaportea
5. Hirugarrenaren fitxa, bankuaren zigiluarekin.
6. Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin zorrik ez dagoela jasotzen duen erantzukizunpeko aitortpena.
7. Basauriko udal dirulaguntzak emateko Ordenantzaren 10. artikuluan ezarritako debekurik ez dagoela jasotzen duen erantzukizunpeko aitortpena.

Euskaltegiak ezin izango du bere ikasleen egiaztagiri eta eskaera bateratua aurkeztu. Ikasle bakoitzak bere eskabidea bete eta aurkeztu beharko du beharrezkoak diren agiri guztiekin, eta kanal ofizialetik bideratu, 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, bere 16.4 artikuluan "Erregistroak" ezartzen duenaren arabera.

5. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA:

Deialdian agertzen dena.

6. BALDINTZAK:

1. Dirulaguntza jasoko dute, bakar-bakarrik, HABEk homologatutako euskaltegietan egindako, eta HABEk homologatutako ikastaroak.
2. Ikasturtean zehar % 90eko bertaratzea egiaztatu beharko da, gutxienez.
3. Autoikaskuntza ikastaroen kasuan, astean 3 orduko bertaratzearen parekoa egiaztatu beharko da, gutxienez. Tutoretza orduak egonez gero, horietan % 90eko bertaratzea egiaztatu beharko da.

4. Egindako maila bat gainditu izana, gutxienez; edota, hala badagokio, gutxienerako aprobetxamendua egiaztatzea (irakaslearen egiaztageria, ikastetxeko Zuzendaritzaren oniritziarekin).

5. HABEren dirulaguntza nahitaez eskatzea, baldintzak betetzen badira; eta Udal honi jakinaraztea ea eman duten ala ez, eta zenbatekoa.

6. Baldintzak betetzen badira, nahitaez eskatzea «Euskara Eskura Txartela» Foru Aldundian (matrikularen zenbatekoa txikiagotzen baitu txartel horrek).

7. DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA:

Oro har, diruz laguntzeko zenbatekoa ezingo da izan ikasturteko matrikularen kostuaren % 50 baino handiagoa, ikasleko 500 €-ko mugarekin eta eskabideak aurkezteko aldi biak batuta. Edozelan ere, dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira beste dirulaguntza publiko edo pribatuekin; muga izango da eskatzaileak izandako gastua. HABEren dirulaguntzarekin batera, ezingo da gainditu gehieneko zenbatekoa. Hala gertatuz gero, udal dirulaguntza muga horretaraino jaitsiko da.

Barnetegien eta udako unibertsitateen ikastaroen kasuan, euskara-klaseei dagokien matrikularen zenbatekoa baino ez da diruz lagunduko, beste gastuak kanpo geratuko dira: ostatu eta garraio gastuak, besteak beste.

8. DIRULAGUNTZAK ESLEITZEKO IRIZPIDEAK:

Jarraian xehe-xehe adierazitako ehunekoei dagozkien dirulaguntzak emango dira:

- a) Matrikularen kostuaren % 50. Izaera orokorrekoa, baldin eta eskatzaileak 6. atalean ezarritako baldintzak betetzen baditu.
- b) Matrikularen % 75eko dirulaguntza, dago(z)kion ikastaroa(k) egin eta 6. ataleko baldintzak betetzeaz gain, 0-12 urte bitarteko seme-alabak dituztenentzat; edota Basaurin erroldatuta egon eta haurrak zaintzen lan egiten dutenentzat.
- c) Matrikularen % 75eko dirulaguntza, dago(z)kion ikastaroa(k) egin eta 6. ataleko baldintzak betetzeaz gain, udalerriko elkarteetan boluntariotza edota ordaindutako lana egiten duten monitore edo norbanakoentzat. Elkarre bakoitzeko, bi pertsona onartuko dira, gehienez.
- d) Matrikularen % 75eko dirulaguntza, dago(z)kion ikastaroa(k) egin eta 6. ataleko baldintzak betetzeaz gain, udalerrian merkataritza- edo ostalaritza-establezimenduko titularrak edota langileak direnentzat.
- e) Matrikularen % 75eko dirulaguntza, dago(z)kion ikastaroa(k) egin eta 6. ataleko baldintzak betetzeaz gain, langabezian egon eta ikasturtearen iraupenaren % 25ean zehar, gutxienez, Lanbiden izena emanda egon direnentzat. Hori egiaztatzeko «**izen-emate aldien txostena**» aurkeztu beharko da (egiaztageri hori Lanbiden edota www.lanbide.eus webgunean eskuratu ahal izango da). Aldi horretako **lan-bizitza** ere aurkeztu beharko da (Gizarte Segurantzaren bulegoetan edota www.seg-social@es webgunean lor daiteke).
- f) Matrikularen % 75eko dirulaguntza, dago(z)kion ikastaroa(k) egin eta, 6. ataleko baldintzak betetzeaz gain, eskabidea aurkezteko unean diru-sarreraren bermerako errenta jasotzen duten pertsonentzat. Udalari baimenik ematen ez bazaio

informazioa eskatzeko, DSBE jasotzeari buruzko egiaztagiria aurkeztu behar da. Lanbiden ematen dute egiaztagiri hori.

Ikasle bakoitzak 500 € jasoko ditu gehienez ere, eskabideak aurkezteko bi aldiak batuta.

Erregistro-hurrenkerari jarraituko zaio, zorrotz-zorrotz, ordainketak egiteko (aurrekontu-zuzkidura dagoen bitartean).

9. ONURADUNEN BETEBEHARRAK:

Udal dirulaguntzak emateko Ordenantzaren 8. artikuluan ezarritakoak; bereziki, dirulaguntza eman duen organoaren aurrean egiaztatzea jarduera egin dela, eta dirulaguntzaz gozatzeko ezarritako helburua bete dela.

10. GEHIENEZKO ZENBATEKOA:

Dirulaguntza lerro honetan 35.000,00 €-koa izango da gehienezko zenbatekoa, eta bi alditan banatuko da:

1. aldia: 31.000,00 €
2. aldia: 4.000,00 €

Epealdi baten amaieran dagozkion dirulaguntzak banatu, eta gehienez eman beharreko zenbatekoa agortu ez bada, aukera egongo da banatu gabeko zenbatekoa ostean eman daitezkeen ebazpenetara bideratzeko.

Era berean, epealdi bateko partida agortzen bada, eskabidea hurrengo epealdian ordaintzeko zain geratuko da, eskabide berririk aurkezteko beharrik gabe; bigarren epealdian ere hala gertatuz gero, hurrengo aurrekontu-ekitaldian ordaintzeko zain geratuko litzateke eskabidea.

Dirulaguntzaren onuradunen baldintzak ez dira aldatu ekitaldi batetik bestera; beraz, deialdi honek barne hartuko ditu Batzorde Kalifikatzaileak (kasu honetan Hezkuntza, Kultura eta Euskarako Informazio Batzordeak) jaso eta onetsitako erreklamazioak, hain zuzen ere, aurreko ekitaldiko dirulaguntza lerro berdinean emandako edota ukatutako diru- laguntzei buruzkoak.

ERANSKINA: EUSKARA

KULTURA-POLITIKA ETA EUSKARA ARLOA BALORAZIO BATZORDEAREN OSAERA: EUSKARA, KULTURA, HEZKUNTZA, GAZTERIA, JAIK ETA KIROLAREN INFORMAZIO BATZORDEA

Dirulaguntza lerroa	EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEA
Diruz laguntzeko kontzeptua	EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEA ELKARTEETAN, ENPRESETAN ETA MERKATARITZAN
Aurrekontu-partida, deskribapena eta zenbatekoa	71 3351 48901_ T.A. Enpresei, Merkataritzari eta Ostalaritzari: 9.800,00€ 71 3351 48166_ T.A. elkarteei: 1.000,00€
Dirulaguntza emateko prozedura	LEHIAKETA SINPLEA

Basauriko Udaleko Euskara Atalak, euskara gizarteratzeko eremuan deialdia egin du dirulaguntzak emateko euskararen erabilera sustatzeko, zehatz-mehatz elkarreetan, enpresetan eta merkataritzan euskararen erabilera sustatzeko. Horrela, Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren helburua lortzen laguntzen du, hots, udalerrian euskararen erabilera sustatzea, Basauriko Udalean euskara sustatzeko indarrean duen plan estrategikoa betez.

Horren arabera, Basauriko Udalak oinarri arautzaileak ezarri ditu, Kultura-Politika eta Euskara Arloaren bitartez, merkataritza, ostalaritza eta enpresa sarean euskara sustatzeko eta bultzatzeko.

1. XEDEA:

Udalerriko merkataritza-eremuan euskararen erabilera sustatzea, hedatzea edo normalizatzea.

Era berean, Basauriko elkarteek irudi publikoan euskararen erabilera sustatzea eta bultzatzea.

2. NORI ZUZENDUA:

- Merkataritza- eta ostalaritza-establezimendu iraunkorrei —egoitza Basaurin izan, eta herrian jarduten dutenei—. Eta, salbuespenez, egoitza soziala beste udalerri batzuetan izan, baina enpresa garatzeko proiektuan kokapena Basaurin izatea aurreikusita daukaten establezimenduei.
- Egoitza edota zerga-egoitza Basauri udalerrian duten merkataritza-sozietate eta kooperatibei. Eta, salbuespenez, egoitza soziala beste udalerri batzuetan izan,

baina enpresa garatzeko proiektuan kokapena Basaurin izatea aurreikusten dutenei.

- Elkarteen Udal Erregistroan inskribatuta dauden eta irabazi-asmorik ez duten elkarte eta taldeei.

BAZTER UTZITAKOAK:

Oinarri hauetan ezarritako diru-laguntzen onuradunak izan daitezkeen erakundeei zerbitzuak ematen dizkieten merkataritza-sozietateak eta kooperatiba-sozietateak. Era berean, deialditik kanpo geratzen dira administrazio publikoen parte-hartzea duten merkataritza-erakundeak.

3. DIRUZ LAGUN DAITEKEEN JARDUERA:

Honako jarduera hauek dira:

- A. Publizitate errotuluak, toldoak eta olanak, eta merkataritza-ibilgailuetako errotulazioa.
- B. Irudi korporatiboa eta papergintza: gutun-azalak, paper menbreteduna, txartelak, erakundearen identifikazio-zigilua, poltsak, inprimakiak (albaranak, fakturak, eta abar), prentsa-iragarkiak, pankartak, bazkide- txartelak eta antzekoak.
- C. Webguneak egitea, eta webguneen ostatatzea (kasu horretan, adieraziko da zein den domeinua).
- D. Euskararen normalizazioan laguntzen duten informatika-programak.

Atal bakoitzeko jarduera bakarrak jaso ahalko du dirulaguntza, eskabideak aurkezteko aldi bakoitzean. Horrela, esaterako, lehen aldian poltsak egiteagatik dirulaguntza eskatu bada, ezingo da «irudi korporatiboa»ri dagokion beste kontzeptu batengatik beste dirulaguntza bat eskatu aldi horretan.

Hondakinak, oro har, eta plastikoak, bereziki, gutxitzeari, gaika biltzeari eta berrerabiltzeari buruzko mozioa onetsi zuen Udalbatzak, 2018ko ekainaren 26ko osoko bilkuran. Onartutako neurrietako bat da lehentasuna ematea plastikorik gabeko produktuei, eta, beraz, hartutako konpromisoa betetzeko, inolako plastiko arrastorik ez duten poltsak baino ez dira diruz lagunduko.

Testua euskaraz, edota euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egon beharko da. Testu elebiduna bada, euskarazko bertsioak lehentasuna izango du, hizkien neurriari edota hizkuntza-ordenari dagokionez.

Helbideak euskaraz egon beharko dira, adibidez:

BASAURIKO UDALA
Kareaga Goikoa 52
Tel: 944666300
Faxa: 944666335
e-posta: udala@basauri.eus

Ez dira baliogarritzat joko txarto idatzitako testuak, edota akats gramatikalak dituztenak, ezta ere euskara eta gaztelaniaren ordena errespetatzen ez dutena, euskarazkoari lehentasuna emateko . Testuak zuzenak direla bermatzeko, komenigarria litzateke Euskara Atalak diruz laguntzekoa den materiala gainbegiratzea, hura fabrikatu aurretik. Horretarako, Basauriko Udalak itzulpen, zuzenketa eta hizkuntza-aholkularitzako doako zerbitzua eskaintzen du (euskara@basauri.eus, 94 466 63 12).

BAZTER UTZITAKOAK:

- Ez dute dirulaguntzarik jasoko izen berezi, toponimo edota abizenez soilik osatutako errotulu, webgune edota irudi-osagaiek.
- Plastikoa daukaten poltsa, edozein motatakoak.

4. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA:

Eskabide-orria aurkeztu beharko da, honako hauekin batera:

- Udal-dirulaguntzak emateko Oinarri Arautzaileen 5.1 artikulua jasotako agiriak.
- Egindako lanari dagokion fakturaren jatorrizkoa. Data bat egin behar du deialdien epeetako datekin.
- Aldatutako osagaia bada, ale zaharraren eta berriaren ale bana; osagai berria bada, oster, horren ale bat. Ezinezkoa bada osagai horiek aurkeztea, argazkiak aurkeztu beharko dira.
- IFK / IFZ / NANA/ AIZ.
- Hirugarrenaren fitxa, bankuaren zigiluarekin.
- Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin zorrik ez dagoela jasotzen duen erantzukizunpeko aitortpena.
- Basauriko udal dirulaguntzak emateko Ordenantzaren 10. artikuluan ezarritako debekurik ez dagoela jasotzen duen erantzukizunpeko aitortpena.
- BEZa aitortzetik salbuetsita egotearen ziurtagiria

5. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA:

Deialdian agertzen dena.

6. BALORAZIO IRIZPIDEAK:

A) Errotulazioa:

- Euskaraz bakarrik: diruz lagunduko da zuritutakoaren % 50, epealdi bakoitzerako 500 €-ko mugarekin.
- Euskaraz eta gaztelaniaz: diruz lagunduko da zuritutakoaren % 30, epealdi bakoitzerako 250 €-ko mugarekin.

B) Irudi korporatiboa, kanpora begirako dokumentuak: eskuorriak, inprimakiak, txartelak, eta abar:

- Euskaraz bakarrik: diruz lagunduko da zuritutakoaren % 50, epealdi bakoitzerako 500 €-ko mugarekin.
- Euskaraz eta gaztelaniaz: diruz lagunduko da zuritutakoaren % 30, epealdi bakoitzerako 250 €-ko mugarekin.

C) Webguneak:

- Euskaraz bakarrik: diruz lagunduko da zuritutakoaren % 50, epealdi bakoitzerako 500 €-ko mugarekin.
- Euskaraz eta gaztelaniaz: diruz lagunduko da zuritutakoaren % 30, epealdi bakoitzerako 360 €-ko mugarekin.

D) Enpresetan eta merkataritza-establezimenduetan euskararen normalizazioan laguntzeko programa informatikoak:

- Diruz lagunduko da programa informatiko bakoitzaren kostuaren % 50, epealdiko 250 €-ko mugarekin.

Diruz lagundutako jarduerak, Basaurin kokatutako establezimenduaz gain, beste udalerrri batzuetan kokatutako merkataritza-establezimenduentzat ere onuragarriak izango badira, Basaurin kokatutakoei dagokien dirulaguntzaren ehunekoa baino ez da emango.

7. ONURADUNEN BETEBEHARRAK:

Udal dirulaguntzak emateko Ordenantzaren 8. artikuluan ezarritakoak; bereziki, dirulaguntza eman duen organoaren aurrean egiaztatzea jarduera egin dela, eta dirulaguntzaz gozatzeko ezarritako helburua bete dela.

8. HIRUGARRENAK AZPIKONTRATATZEA:

Udal dirulaguntzak emateko Ordenantzaren 21. artikuluan aurrekusitako gehienezko kopurura arte.

9. GEHIENEZKO ZENBATEKOA:

Dirulaguntza lerro honetan 10.800,00 €-koa izango da gehienezko zenbatekoa, eta bi alditan banatuko da:

1. aldia: 5.400,00 €
2. aldia: 5.400,00 €

Epealdi baten amaieran dagozkion dirulaguntzak banatu, eta gehienez eman beharreko zenbatekoa agortu ez bada, aukera egongo da banatu gabeko zenbatekoa ostean eman daitezkeen ebazpenetara bideratzeko.

Era berean, epealdi bateko partida agortzen bada, eskabidea hurrengo epealdian ordaintzeko zain geratuko da, eskabide berririk aurkezteko beharrik gabe; bigarren epealdian ere hala gertatuz gero, hurrengo aurrekontu-ekitaldian ordaintzeko zain geratuko litzateke eskabidea.

Dirulaguntzaren onuradunen baldintzak ez dira aldatu ekitaldi batetik bestera; beraz, deialdi honek barne hartuko ditu Balorazio Batzordeak (kasu honetan Hezkuntza, Kultura eta Euskarako Informazio Batzordeak) jaso eta onetsitako erreklamazioak, hain zuzen ere, aurreko ekitaldiko dirulaguntza lerro berdinean emandako edota ukatutako diru-laguntzei buruzkoak.

EUSKERA ERANSKINA

Dirulaguntza lerroa	EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEA
Diruz laguntzeko kontzeptua	GIDABAIMENA FORMAZIOA EUSKARAZ EGITEA
Aurrekontu partida	71 3351 48014
Partidaren deskribapena	Transf. arr. Gidabaimena, EUSKARAREN GIZARTE-SUSTAPENA
Zenbatekoa	3.500 €
Dirulaguntza emateko prozedura	LEHIAKETA SINPLEA

Basauriko Udaleko Euskara Atalak, euskara gizarteratzeko eremuan deialdia egin du dirulaguntzak emateko euskararen erabilera sustatzeko, Gidabaimena formazioa euskaraz egitea sustatzeko udalerriko gazteen artean. Horrela, Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren helburua lortzen laguntzen du, hots, udalerrian euskararen erabilera sustatzea, Basauriko Udalean euskara sustatzeko indarrean duen plan estrategikoa betez.

Horren arabera, Basauriko Udalak oinarri arautzaileak ezarri ditu, Kultura-Politika eta Euskara Arloaren bitartez, euskarazko Gidabaimena sustatzeko.

1. XEDEA:

Udalerriko merkataritzan euskararen erabilera zabaltzeko edo normalizatzea; eta, era berean, bultzatzea udalerriko gazteek gidabaimena lortzeko prestakuntza euskaraz egitea.

2. NORI ZUZENDUA:

17 eta 23 urte arteko gazteak (hau da, 2002-2008 bitartean jaioetakoak), Basaurin erroldatuak, gidabaimena lortzeko azterketa euskaraz egin dutenak 2024ko ekainaren 1etik, 2025eko deialdiko eskabideak aurkezteko azken egunera bitartean.

3. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA:

Eskabide-orria aurkeztu beharko da, honako dokumentu hauekin batera:

- Teoria azterketa, gutxienez, euskaraz egin dela egiaztatzen duen Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren agiria (egiaztagiria eskuratzeko, dagozkion tasak ordaindu behar dira; argibide gehiago Trafikoko Zuzendaritza Nagusian).
- Teoria azterketarako prestakuntza euskaraz egin dela jasotzen duen autoeskolaren egiaztagiria. Matrikularen zenbatekoa ere adierazi beharko du dokumentuak, edo, bestela, matrikularen ordainagiriaren kopia aurkeztu beharko da, jatorrizkoarekin konpultsatzeko.
- NAN-A/AIZ/PASAPORTEA

- Hirugarrenaren fitxa, bankuaren zigiluarekin.
- Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin zorrik ez dagoela jasotzen duen erantzukizunpeko aitortpena.
- Basauriko udal dirulaguntzak emateko Ordenantzaren 10. artikuluan ezarritako debekurik ez dagoela jasotzen duen erantzukizunpeko aitortpena.

4. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA:

Deialdian agertzen dena.

5. DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA:

Eskatzaileak teorikoaren matrikularen kostua jasoko du, gehienez 300 €, teoria azterketa euskaraz egitearren.

Dirulaguntzak eman eta gero partidari dirua geratu bada, 100 euroko saria zozkatuko da dirulaguntza jaso dutenen artean, gasolina erosteko udalerriko gasolindegietan, edota edozein erosketa egiteko udalerriko saltoki txikietan (elikagaiak eta edariak kenduta), edo autoeskolan gidabaimena ateratzeko klase praktikoak ordaintzeko. Partida agortu arte, ahal beste sari zozkatuko dira. Dirulaguntza jaso duen gazte bakoitzak sari bakarra jaso ahalko du.

6. DIRULAGUNTZAK ESLEITZEKO IRIZPIDEAK:

Behin baino ezingo da jaso gidabaimena lortzeko azterketa euskaraz egiteagatik dirulaguntza.

Bestalde, erregistro-hurrenkerari jarraituko zaio, zorrotz-zorrotz, ordainketak egiteko (aurrekontu-zuzkidura dagoen bitartean).

Partida agortzen denean, eskabidea hurrengo epealdian ordaintzeko zain geratuko da, eskabide berririk aurkezteko beharrik gabe.

Dirulaguntzaren onuradunen baldintzak ez dira aldatu ekitaldi batetik bestera; beraz, deialdi honek barne hartuko ditu Batzorde Kalifikatzaileak (kasu honetan Hezkuntza, Kultura eta Euskarako Informazio Batzordeak) jaso eta onetsitako erreklamazioak, hain zuzen ere, aurreko ekitaldiko dirulaguntza lerro berdinean emandako edota ukatutako diru- laguntzei buruzkoak.

7. ONURADUNEN BETEBEHARRAK:

Udal dirulaguntzak emateko Ordenantzaren 8. artikuluan ezarritakoak; bereziki, dirulaguntza eman duen organoaren aurrean egiaztatzea jarduera egin dela, eta dirulaguntzaz gozatzeko ezarritako helburua bete dela.

8.- ZURITZEA:

Eskabidearekin batera, prestakuntza euskaraz egin dela eta matrikula ordaindu egin dela jasotzen duen egiaztagiria ere aurkeztuko dute onuradunek. Horrekin, Batzordeak joko du emandako dirulaguntza zurituta dagoela jada.

Sarien kasuan, berriz, jaso eta 6 hilabeteko epea izango dute onuradunek erregaia erosteko. Epe hori agortuta, eta, edozelan ere, hurrengo ekitaldiko uztailaren 31 baino lehenago, gastu horri dagozkion ordainagiriak aurkeztu beharko dituzte Kultura-politika eta Euskara Arloan. Ordainagirietan honako datu hauek agertu beharko dira: faktura nork egin duen; bezeroaren izen-abizenak eta NANA/IFZ/PASAPORTEA; eta faktura zenbakia, data eta kontzeptua.

Zuritzea ez bada egiten Legean edota Dirulaguntzak emateko Udal Ordenantzaren 26. artikuluan aurreikusitako moduan, edota ez bada zenbateko guztia zuritzen, saria itzuli egin beharko da. Gastuaren zati bat bakarrik zuritzeak, berriz, zuritu gabeko zatia itzultzeko beharra ekarriko du.

ERANSKINA EUSKERA

Dirulaguntza lerroa	IKASTETXEETAN EUSKARA SUSTATZEKO JARDUERAK EGITEA ESKOLA-ORDUTEGI BARRUAN
Diruz laguntzeko kontzeptua	EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA OSPATZEKO, IKASTETXEETAN JARDUERAK EGITEA
Aurrekontu-partida	71 3351 48176
Partidaren deskribapena	Dirulaguntzak ikastetxeei
Zenbatekoa	4.500,00 €
Dirulaguntza emateko prozedura	NORGEHIAGOKA

Basauriko Udaleko Euskara Atalak, euskara gizarteratzeko eremuan deialdia egin du dirulaguntzak emateko euskararen erabilera sustatzeko, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko ikastetxeetan jarduerak egitea sustatzeko. Horrela, Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren helburua lortzen laguntzen du, hots, udalerrian euskararen erabilera sustatzea, Basauriko Udalean euskara sustatzeko indarrean duen plan estrategikoa betez.

Horren arabera, Basauriko Udalak oinarri arautzaileak ezarri ditu, Kultura-Politika eta Euskara Arloaren bitartez, ikastetxeetan garatzen diren jarduerak laguntzeko Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko Udalak antolatutako programa indartzeko.

1. XEDEA:

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA ospatzeko jarduerak sustatzea udalerriko ikastetxeetan. Jarduera horiek ikastetxeak berak antolatu beharko ditu, Udalak egun horretarako programatutako jarduerekin koordinatuta.

2. NORI ZUZENDUA:

Udalerriko Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergo ikastetxeei; eta prestakuntza-zikloak ematen dituzten ikastetxeei, edo eskabideak aurkez ditzakete Basauri udalerriko ikastetxe eta ikasketa-kooperatibetako guraso elkarteek (IGE).

Ikastetxe berean Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza badago, eskabide bi aurkeztu ahal izango dira, ikastetxe horiek baztertuta geratu ez daitezen. Egiaztatu beharko da, ordea, jarduerak desberdinak izango direla (zein ikasleri zuzentzen zaizkien).

3. DIRUZ LAGUN DAITEKEEN JARDUERA:

Udalak EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA ospatzeko prestatutako egitarauan parte hartzeko ikastetxeak berak antolatutako jarduerak aurrera eramateko dirulaguntzak.

BAZTER UTZITAKOAK:

Basauriko Udaleko dirulaguntzen deialdiaren barruan, eskolaz kanpoko jarduerak eta beste dirulaguntza lerro batzuetan diruz laguntzeko xede diren jarduerak.

4. DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA:

Eskabide-orria aurkeztu beharko da, honako dokumentu hauekin batera:

- Jardueren proposamena
- Aurrekontua (Aurrekontua_Presupuesto.xls).
- Hirugarrenaren fitxa.

5. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA:

Deialdian agertzen dena.

6. BALORAZIO IRIZPIDEAK:

Jarduera egiteko beharrezko materialerako dirulaguntza emango da: eskatzaile bakoitzari 300 €, gehienez. Dirulaguntza jasotzeko, ordea, egiaztatu beharko da aurkeztutako proiektua beharrezkoa dela jarduera aurrera eramateko.

7. ONURADUNEN BETEBEHARRAK:

Udal dirulaguntzak emateko Ordenantzaren 8. artikuluan ezarritakoak; bereziki, dirulaguntza eman duen organoaren aurrean egiaztatzea jarduera egin dela, eta dirulaguntzaz gozatzeko ezarritako helburua bete dela.

8. HIRUGARRENAK AZPIKONTRATATZEA:

Udal dirulaguntzak emateko Ordenantzaren 21. artikuluan ezarritako baldintzetan egingo da.

9. GEHIENEZKO ZENBATEKOA:

Dirulaguntza lerro honetan 4.500 € banatuko dira, gehienez ere. Eskatzaile bakoitzari 300 €, gehienez.

Erregistro-hurrenkeraren arabera izapidetuko dira eskabideak.

Partida agortuko balitz, eskabidea hurrengo ekitaldian ebatziko litzateke, eskabide berria aurkezteko beharrik gabe.